




Arduraduna: Amagoia Mujika Telleria. **Erredakzioa:** Asier Aiestaran Iruretagoiena, Mikel Urdangarin Irastorza.
Argitaratzailea: Astero. **Lege Gordailua:** SS-77/07. **Helbidea:** Portuetxe 23-2a. 20018 Donostia. P.K.: 1099. Tel.: 943 31 69 99 / Faxe: 943 31 69 98. **e-posta:** info@gaur8.info. **Publizitatea:** Euskal Prensa. Tel.: 94 424 72 06.



Elkarrizketa: Delmy Cortez eta Morena Herrera, abortuaren aldeko ekintzaileak 04

Emakumeen borrokak utzitako zazpi irudi esanguratsu 08

«Joxpinaxi», martxoak 8 batean gizonezkoak menderatu zituen emakume pilotaria 12

Zaintza, Euskal Herrian bizi diren emakume migranteen ahotsean 17

Lore Lujanbio: «Zaintzaren ikuspegi erromantizatzaileei aurre egin behar zaie» 22

Emakumeak zientziara tentatzeko ahalegin etengabea 28

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** «Woke»
lubakiaren sakona erakutsi du
Jane Fondak
- 10 **Oier Gorosabel:**
«Mangaldering»
- 11 **Ramon Sola:** Iluntasunean
itsasargia izateko bokazioari
eutsi
- 20 **Gorka Etxebarria Dueñas:**
Iragana ez da inoiz etxean egon
- 21 **Mijo Lizarzaburu:** Gaixotasuna
negozio, Sagardui aberats
- 27 **Maidier Iantzi Goienetxe:**
Otsemea
- 27 **Xabier Mikel Errekondo:**
Iraultza imposiblea
- 30 **Nerea Sancho Esnaola:** Atletak
bezala



{ datorrena } Iñaki SOTO

«Woke» lubakiaren sakona erakutsi du Jane Fondak

Duela gutxi, SAG aktoreen sindikatuak Jane Fondari bere ibilbide osoagatik saria eman zion. Bere diskurtsoa oso ondo argudiatuta eta idatzita dago, inspiratzailea da. Hedabide gehienek Fondak «woke» terminoaz egiten duen defentsa azpimarratu zuten, hurkoarekiko enpatia eta kezka gisa ulertuta. Baina diskurtsoa benetan biribila da.

«Woke» terminoari dagokionez, «awake»-tik dator, «esnatu» hitzetik. Bere erabilera politikoaren jatorria XX. mendearen hasierako beltzen protestak omen dira. Zehazki, Huddie Ledbetterren abesti batek «Alabama kontuz ibili eta esna egon» esaten du. Abestia «landlord» delakoei zuzendua dago, hau da, jabea. Arrazaren eta etxebizitzaren, alegia, zapalkuntzen arteko lotura 1938ko abesti batean zegoen.

Izan ere, arrazakeriaren aurka egotea, trans pertsonen eskubideak defendatzea edo larrialdi klimatiakoaren kezka ez dira soldata-igoerak eskatzearekin edo etxebizitzarako eskubidearekin bateraezinak. Hori egiteko gai ez denak ez lizkioke bere akatsak ez-kerrari egotzi behar. «Sindikatuaren defendatzaile sutua naiz. Bizkarra babesten digute, komunitatean kokatzen gaituzte eta boterea ematen digute. Komunitateak boterea esan nahi du, eta hori oso garrantzitsua da orain. Langileen boterea erasotzen ari dira eta komunitatea ahultzen ari dira», azaldu zuen Fondak.

Belaunaldi-kontua ere ez da, Fondak 87 urte baititu, eta bere adinaren erdia duen batek baino pentsamendu garaikideagoa badu, akatsa ez da berea. Norbaitek tertulia batean Fondaren bilakaera positiboa gogoratu zuen, noizbait bere bizitzan *hippya* izan zelako. Diskurtso honek eta bere praktika politikoak erakusten dute hortik ere atera daitekeela. Hainbatentzat, autoritarismoaren atea topatzea zailagoa dirudi.

Donald Trumpekin, AEBen egoera larria da, eta Fondak argi du ekiteko unea dela: «Ez gaitzezen engaina gertatzen denaren larritasunaz. Ausartak izateko unea da», esan zuen. «Ikusi al duzue inoiz apartheidari, eskubide zibilei edo Stonewalli buruzko dokumentalik, eta galdetu al diozue zuen buruari borroka horiekin bat egiteko adorerik izango ote zenuket? Ez diogu gehiago geure buruari galdetu behar. Hau da gure dokumentalaren unea, eta ez da saiakera bat», gehitu zuen. Bere ustez, «ez dugu isolatu behar, baizik eta komunitatean mantendu, ahulenei lagundu eta etorkizunaren ikuspegi inspiratzailea proiektatu».

Fondak, Pearl Cleage idazlearen hitzak aipatuz, hitzaldia edertasuna, maitasuna, itxaropena eta egia bezalako balio handiak goratuz amaitu zuen.

Jane Fondaren ustez, «ez dugu isolatu behar, baizik eta komunitatean mantendu, ahulenei lagundu eta etorkizunaren ikuspegi inspiratzailea proiektatu (...). Ausartak izateko unea da»

Pepe Mujicak bizitzaren zentzuari buruz esaten duenarekin lotzen da Fondaren diskurtsoa: «Triki-mailua bizitzari zentzua ematea da. (...) Helburu bat aurkitzea da kontua, dela familian, dela adiskidetasunean, dela mundu hobe baten aldeko borrokan».

Bizitzan jasan dituen bazterkeriek norabide hori indartu dute, aitzakiarik gabe. «Emakume zuri, ospetsu eta pribilegiatua naiz. Esperientzia horiek niri eragin bazidaten, nola eragingo zieten aitorpen eta baliabide berberak ez dituztenei?», hausnartu zuen berriki.

Testuinguru erreakzionario horretan biziko dugu aurtengo Martxoak 8, gaurko eguna. Fondaren edozein esaldi sinatu daiteke horri aurre egiteko. •



DELMY CORTEZ ETA MORENA HERRERA

ABORTUAREN ALDEKO EKINTZAILEAK

Abortuaren aldeko ekimen baten barnean, ugalketa eskubideen alde lanean aritzen diren hainbat ahots bildu ziren otsailean Basauriko Marienean, Emakumeen Etxean. Horien artean, Delmy Cortez, El Salvadorren hildako Beatrizen ama, eta Morena Herrera, herrialde bereko ekintzaile feminista.

Itxaso LEON KAREAGA

«Beatrizena bezalako istorioek bestelako errealitate bat irudikatzea baimendu digute emakumeoi»

«2013an, arrisku handiko bigarren haurdunaldi bati egin behar izan zion aurre haur txiki baten ama gaztea zen Beatrizek. Medikuek haurdunaldia etetea gomendatu zuten bere bizitza babesteko, baina El Salvadorko abortuaren erabateko zigorra tarteko, Estatuak prozedura hori ukatu zion»

Alboko orrialdean, Delmy Cortez, eta eskuin aldean, Morena Herrera.
Endika PORTILLA | FOKU



Azken 30 urteetan, munduko 60 herrialdek baino gehiagok legedia aldatu dute abortatzeko eskubidea bermatzeko. Beste batzuetan, ordea, abortua egoera gehienetan debekatzen duten legeak dituzte. Horren adibide dira Nikaragua, Polonia, El Salvador, Dominikar Errepublika, Honduras, Malta edo Maroko.

Hori dela eta, Munduko Osasun Erakundeak igorritako datuen arabera, urtero ugaltzeko adinean dauden 700 milioi emakumek ez dute legezko abortu segurua egiteko aukerarik. Horren ondorioz, urtero milaka emakume hiltzen dira edo espetxe-zigorrera kondenatzen dituzte.

Besteak beste, El Salvadorko egoera izan zuten hizpide otsailean Basauriko Emakumeen Etxean, Marienean. Mugarik Gabe antolakundearen eskutik eta Udalaren babespean, "Abortatzeko eskubidea, giza eskubidea" erakusketa izan da ikusgai bertan iragan otsailean zehar, eta, hura inauguratzeko mahai inguruan, nazioarteko hizlari bereziak jaso zituen espazio mitiko horrek.

Izan ere, ez da kasualitatea ekimen hau Basaurin abiatu izana. Kasu historiko bat topa daiteke bertan, "Basauriko 11k" izenpean, abortatu izana leporatuta prozesu penala pairatu zuten hamaika emakumeena. 1976tik 1985era luzatu zen, eta abortatzeko eskubidearen prozesuan aitzindaria da kasua, Espainiako Estatuko demokra-

zian onartu zen abortuaren lehenengo legea sustatu baitzuen.

Hizlarien artean egon zen Morena Herrera, El Salvadorko ekintzaile feminista eta hainbat kolektiboren parte izandakoa, Latinoamerikako sexu-eta ugalketa-eskubideen aldeko borrokako funtsezko figura.

Delmy Cortez ere bertaratu zen hitzordura. El Salvadorko aktibista bera ere, 11 urte eman ditu alaba Beatriz zena-arentzat justizia eskatzen. Beatrizen kasua, herrialde barruan eta bertatik kanpo, abortatzeko eskubidearen defentsan erreferentzia izan da.

2013an, arrisku handiko bigarren haurdunaldi bati egin behar izan zion aurre haur txiki baten ama gaztea zen Beatrizek. Lupusak jota zegoen

eta pobrezia eta prekaritate egoeran bizi zen. Diagnostikatu zioten fetuak anentzefalia zuela, hau da, ez zuela garunik garatu, eta hori bateraezina zen sabeletik kanpoko bizitzarekin. Medikuek haurdunaldia etetea gomendatu zuten bere bizitza eta osasuna babesteko, baina El Salvadorko abortuaren erabateko zigorra tarteko, Estatuak prozedura hori ukatu zion. Behar baino hilabete gehiagoren ostean, zesarea egin zioten azkenik. Beatriz onik atera zen hartatik, baina, osasun egoera zaurgarria tarteko, laster hil zen trafiko istripu arin batean.

2024ko abenduaren 20an, urte luzetako itxaronaldiaren ostean, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak epai bat eman zuen El Salvadorko Esta-

tuak Beatrizen auzian eta beste hainbatetan duen erantzukizuna adierazteko. Indarkeria obstetrikoa eta osasunerako eskubidea urratzea leporatu zioten.

Duela hamar urte baino gehiago atzera eginga hasiko dugu kontakizuna. Zein bizi-eta osasun-egoeratan zegoen Beatriz arriskuko bigarren haurdunaldi horren berri izan zuenean?

[Delmy Cortez]: Osasun egoera larrian zegoen, lupusaz gaixoa. Gorputza zauriz josia zuen, eta eskuak bendatuta; ezin zuen bere kabuz jan, nik eman behar nion janaria, une oro lagundu behar izaten nion.

Bizitoki nuen Usulutaneetik El Salvadorrera joan eta etorritzen nintzen egunero, eta os-

pitalean zorrotzak ziren, senideei sartzen uzteko garaian. Medikuek esaten zidaten, haurdunaldia eteten ez bagenuen, Beatriz eta bere haurra hil egingo zirela, nahiko kritikoko zegoela eta. Azkarra izan behar zuen prozesuak, baina 81 egun eman behar izan genituen ospitalean, kasua nola ebartziko zain.

Nolakoak izan ziren zalantza eta borroka hilabete horiek, fetuaren malformazioen berri izan zuenetik Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak epaia eman arte?

[D.C.]: Zaila izan zen biontzat. Larritasunean eta torturan eman zuen berak aldi hori, taldeak etortzen baitzitzaizkion dirua eskaintzera eta ez abortatzeko eskatzera, baina jakin bagenekien ezinezkoa zela haurdunaldi horrekin jarraitzea.

Unea iritsi arte egon ginen borrokan. Azkenean, zesarea egin behar izan zioten, baina ez zuen zertan puntu horretaraino iritsi, Beatrizentzat arrisku handiagoa suposatzen zuelako. Bere bizitza ez zen berriro berdina izan, eta gurea ere ez.

Gaur egunera itzuliz, badira bi hilabete Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak, azkenik, El Salvadorko Estatuak “Beatriz eta beste batzuk vs. El Salvador” kasuan duen erantzukizuna adierazten duen epaia eman zuela. Albiste gazi-gozoa?

[D.C.]: Horren berri eman zigitunean, justuagoa izatea espero genuen, baina pozik gaude epaileek Beatrizen eskubideak urratzeagatik Estatu erruduna zela esan zutelako. Auzitegira joan ginenean, alabaren izena ar-

gitzeko eskatu nuen, eta espero dut Estatuak bete egingo duela eskatu zaion hori.

[Morena Herrera]: Esan behar da epaia berandu iritsi zela, entzunaldia 2023ko martxoan izan baitzen. Badakigu Gorteak eta, oro har, sistema interamerikarrak presio handia jasan zutela. Latinoamerikako gainontzeko Estatuetatik mehatxuak egin zizkieten pertsona askok, esanez erabakiak sistematik aterako zirela euren herrialdeetako legeriak aldatzea suposatzen bazuen.

Gure erabakia presiorik ez egitea izan zen, nolabaiteko lasaitasunez eztabaidatu behar zutelako. Esperoan mantenduginen, baina sinetsita geunden 2025ean etorriko zela epaia, eta ustekabean iritsi zitzaigun jakinarazpena.

Maila honetako auzietan esperientzia duten lankideen arabera, Gorteak diskrezio gehien ezarri duen prozesuetako bat izan da hau; ez zuen deliberazioa iragarri bestekasuetan bezala, eta horrek kezkatzen gintuen. Mehatxuekin zerikusi handia du horrek, mehatxuek ahuldu egiten baitute giza eskubideen urraketak agerian uzteko funtsezkoa izan den sistema bat.

Epaia ren arabera, Estatuak da Beatrizen osotasun pertsonalerako, bizitza pribaturako, babes judizialerako, indarkeriarik gabeko bizitza bizitzeko, osasunerako eta senideen osotasun pertsonalerako eskubideak urratzearen erantzulea. Ez da, ordea, abortatzeko eskubidea aipatzen.

[D.C.]: Bai, horretan ez zen oso argia izan, «protokoloak» besterik ez du esaten. Argiagoa izatea espero genuen, eta El Salvadorren egoera horretan

egon daitezkeen emakumeei arreta eskaintzea.

[M.H.]: Estatuak Beatrizen giza eskubideak urratu zituela onartzen du epaiak, guk eskatzen ditugun guztiak ez badi-ra ere. Nabari da Gortearen aurkako kanpainak eragina izan zuela.

Gorteak agintzen dituen neurriak ez dira nahikoa, protokoloak aplikatzeko agintzen dutelako, baina leiho bat zabalik uzten dute, araudia aldatzearena. Aitortzen da Beatrizek eta medikuek segurtasun juridiko falta izan zutela, baina ez da esaten abortua gogor zigortzearen ondorio denik. Epaile bakarrak eman zuen boto disidentea zentzu horretan.

Izan ere, entitateak asko neurtu zuen zer esaten zuen, herritarren aurkako taldeen erantzunik ez sortzeko. El Salvadorko emakumeok esaera bat dugu: «Ni chicha ni limonada». Epaia horrelakoa da, egitateak onartzen ditu, baina ez errepikatzeko neurriei dagokienez, oso motz geratu da.

Berme-neurriak ezartzeko agindua igorri izanaz gain, esan beharra dago lehen aldia dela abortuari buruz, zeharka bada ere, eztabaidatu dela Gortean. Zenbaterainoko garrantzia izango du mugargari horrek antzeko egoeran egon daitezkeen beste hainbat emakumeren babesari begira?

[M.H.]: Esango nuke Beatrizen kasua epaiari zein prozesu osoari dagokienez interpretatu behar dela. Epaiaz gain, istorioak berak eragin du aldaketa. Emakumeen imajinarioa aldatu egin da, jendea ohartu da abortuaren erabateko zigorra ez dela ideia abs-



«Emakumeen imajinarioa aldatu egin da, jendea ohartu da abortuaren erabateko zigorra ez dela ideia abstraktu bat, jendearen bizitzetan gertatzen den egoera zehatz bat baizik»

traktu bat, jendearen bizitzetan gertatzen den egoera zehatz bat baizik.

Onartu behar dugu aldaketak egon badaudela; kasuak mugimendu feministan, giza eskubideen aldekoan eta gizartean bertan izan du eragina, eta Latinoamerikan elkartasun feminista mugimendu bat sortu du, Erdialdeko Amerikatik harago.

Beatrizi indarkeria obstetrikoa egin ziotela onartu izana oso garrantzitsua da, arrisku handiko haurdunaldia jasaten duen emakume orok eska baitezake, berak nahi badu, haurdunaldia etetea, eta etete hori ukatzea indarkeria obstetrikotzat jo daiteke. Hala ere, kontuz ibili behar da, delitu hori profesional medikoen gain erori ohi baita, eta kasu honetan Estatuarena baita erantzukizuna, indarrean dagoen araudiagatik.



Abortuaren aurkako munduko legerik murriztaileenetako bat da El Salvadorkoa, 30 eta 50 urte arteko espetxe-zigorrarekin. Pareko lege zorrotzak dituzten beste herrialde batzuetara estropolatu liteke lorpen hau?

[M.H.]: Baietz uste dut. Hazi garen gizarteetan, legeak bereziki murriztaileak izateaz gain, ez zen gai az hitz egiten. Isiltasuna zen nagusi, gogoan dut gure herrialdean abortua existitzen ez zeneko garaia, legea

aldatzean estatistika ezabatu zutelako. Horrelako istorioek ekarri dute jendeak hitz egitea, jarrera hartzea, emakumeok errealitate hori beste modu batean bizi dezakegula irudikatze gaitasuna izatea... Hori guztia bada errealitatea aldatzen hastea, gure irudimenarekin, gure nahiarekin.

Zuen borroka luzea izan da, baina nazioarteko babes handia ere izan duzue. Nolakoa izan da bide hori?

[D.C.]: Borroka hau hasi genuenean, bagenekien familia gisa pobreak ginela eta ez geneukala behar beste baliabide ogroekin lehiazteko. Hala ere, erakunde eta kolektibo feminista ugari izan ditugu alboan, eta hor hasi ginen gogotsuago eta indartsuago sentitzen.

Nolako etorkizuna aurreikusten duzue? Zeintzuk izango dira hurrengo urratsak?

[M.H.]: Garrantzitsua da gure burua antolatu eta egituratzea, bai tokiko komunitateetan, bai eskualde artean eta nazioartean.

Jakin behar dugu ez gaudela bakarrik, mugimendu bat ga-

«Borroka hau hasi genuenean, bagenekien familia gisa pobreak ginela eta ez geneukala behar beste baliabide ogroekin lehiazteko. Hala ere, erakunde eta kolektibo feminista ugari izan ditugu alboan»

rela eta Latinoamerikan, zehazki, marea berdeak badi-rela adierazpen bat. Martxoan bertan, ekimen horietan parte hartzen dugun emakumeok bilerak egingo ditugu hainbat herrialdetan, eta hori da, nire ustez, lehenengo gakoa: beste batzuk badaudela eta artikulatu egiten garela ikustea.

Bigarrenik, uste dut funtsezkoa dela lortutakoa ospatzea. Mehatxupearan gaude, presioak jasaten ari gara, baina, hala ere, aurrera egin dugu. Aurrera egin izan ez bagenu, gaur ez ginateke existituko. Hau gure aurrerapausoen erantzuna da.

Amaitzeko, belaunaldien arteko elkarriketak sustatzea aipatuko nuke, hori baita mugimenduak iraungo duela ziurtatzeko modu bakarra. Ez naiz ari belaunaldi erreleboez, bizitakoak partekatze elkarriketez baizik.

[D.C.]: Oraingoz, beharrezkoa den kasuetan, emakumeek tratamendu hori izan dezaten eskatzen jarraituko dugu. Ez da erraza izango, baina, denok batera borrokan jarraituz gero, lortuko dugun itxaropena dugu.

ESTREINALDIA

Martxoaren 12an hasita

asteazkenero 21:30ean

Hamaika Telebistan

ATERPEA

Diskurtso faxisten dikan

dauden herritarren aterpe


hamaika

 IKUSMIRA

ZAZPI IRUDI ESANGURATSU

Martxoaren 8aren testuinguruan, Getty argazki agentziak emakumeen eskubideen aldeko borrokaren eta eskubideen aldeko emakume borrokalarien ehunka argazki jarri ditu eskuragarri bezeroen artean. Londresen sortutako konpainia izaki, hazkunde prozesua AEBetan bizi izan duena gerora, borroka horien ikuspegi erabat anglo-saxoia eskaintzen du. Baina begirada hori oso murrizta suertatu daitekeela aldeaz aurretik onartuz, hainbat perla aurkitu ditugu zabaldu duten artxiboko dokumentu horietan. Esaerak dioten moduan, ez daude denak, baina daudenak badira. Hemen dituzue zazpi pilula.

Asier AIESTARAN



HISTORICA GRAPHICA COLLECTION | HERITAGE IMAGES | GETTY

> Indarrez elikatzen

Argazki hau 1909an ateratakoa da, eta sufragista bat ikus daiteke, Londresko Holloway Prison kartzelan; zunda baten bidez, sudurretik indarrez elikatzen ari dira. Asko izan zi-

ren gose-greba egitea erabaki zuten sufragistak, gobernuak preso politiko moduan hartzen ez zituelako. Irudi honen antzekoak propaganda moduan zabaldu zituzten.



MUSEUM OF LONDON | HERITAGE IMAGES | GETTY

> Sylvia Pankhurst

Sylvia Pankhurst sufragista, gose-, egarri- eta lo-greba baten ostean, Londresko East End auzotik ateratzen dute ki-deek 1914ko ekainean. Osasunez oso ahul zeudenean aske

uzten zituzten sufragistak, baina osatu bezain laster berriz atxilotzen eta kartzelatzen zituzten zigorrak betetzeko. 1928ra arte ez zen legeztatu emakumeen boto eskubidea.



HULTON-DEUTSCH COLLECTION | CORBIS via GETTY IMAGES

> Emily Davison

1913ko Epsom Derby zaldi lasterketetan, Emily Davison sufragista George V erregearen Anmer zaldiak jota hil zen. Davison publikoaren artetik ibilbidera irten eta zaldiaren bri-

dei heltzen saiatu zen protesta moduan, baina animaliaren oinetan amaitu zuen larriki zaurituta. Bere heriotzak sekulako lurrikara sortu zuen eta jendetza bildu zen hiletan.



Tom STODDART | GETTY IMAGES

> Misil nuklearren aurka

Poliziak emakume bat atxilo darama, lagunaren kexei entzungor eginez, Greenham Common aire-basean (Berkshire, Ingalaterra) misil nuklearren aurka eginiko protesta baten.

1983a zen, hiru urte falta ziren Txernobylgo hondamendirako, eta nuklearren gaia itzalean geratu dela dirudien arren, krisi ekosoziala borroka-zelai inportantea da.




Buddy MAYS | GETTY IMAGES

> Abortua legeztatzeko eskaera

Argazkia 1975ekoa da, Santa Fe hirian (Mexiko Berria) egina. Bertako State Capitol eraikinean abortua legeztatzearen aldeko eta aurkako mobilizazioek talka egiten zuten behin.

baino gehiagotan. Gezurra dirudi, baina 50 urte berandua go, abortua debekatzen duten legeak berreskuratzen ari dira hainbat estatutan. Oraindik pil-pilean dagoen borroka da.



Ted STRESHINSKY | CORBIS via GETTY IMAGES

> Tracy Sims

Tracy Sims, eskubide zibilen aldeko ekintzailea, beltzak onartzen ez zituen San Franciscoko Harbor Court hotelaren aurkako mobilizazioan. AEBetan 50eko eta 60ko hamarkadetan indartu zen segregazioaren eta arrazakeriaren aurkako borrokan funtsezkoak izan ziren emakumeak, Rosa Parks, Mary Antona Ebo, Coretta King edota Angela Davis, esaterako.



Guy SMALLMAN | GETTY IMAGES

> Palestina, eta beste hainbat

Emakume batek hildako haurtxo baten gorpua irudikatzen du, Palestinaren aldeko manifestazio batean, Londresen. Gauza jakina da edozein gerra testuingurutan emakumeak

direla bortizkeria gehien sufritzen dutenak, zer esanik ez Israel Palestinan egiten ari den genozidioan. Ukraina, Kongo, Siria, Yemen... zoritxarrez, zerrenda luzea da, luzeegia.



Oier GOROSABEL
Fisioterapeuta

Mangaldering

Gizonek emakumeei zerbait azaltzen dietenean, besteak ezer ez baleki bezala edota era paternalista batean, «mansplaining» egiten dela

esaten da. Matxismo mota horretan erori nahi ez dudanez, “arzalpenak” ematearen ordeztan, interesatzen zaizkidan galdera batzuk eginda konformatuko naiz. Izan ere, “kristalezko sabai” benetako fenomeno da, milaka andrazkori egunero eragiten diena, eta ez gara ezer deskubritzen ari. Galdera hauek egiteko gogo hurbileko kolektiboetatik dudanez azagutzatik dator: fisioterapeutak, sukaldariak, zaharren egoitzetako langileak, kultura-gizarte taldeak. Kolektibo hauetan guztietan, oro har, emakume kopurua altuagoa izaten da gizonena baino. Halere, gizonak duten presentzia edo entzutea, nolabait esateko, nabarmen handiagoa izaten da.

Bizitzan zehar talde ugartan “endredatzen” ibilitakoa naiz ni, gizarte, politika edota kultura kontuetan nagusiki. Haietako askotan, emakume kopuru altua izan arren, fenomeno bera errepikatzen zen: asanbladetan, esate baterako, hitza hartzen zutenak gizonetakoak zirela. Andrazkoen parte hartzea ez zegoen debekatuta, bistan da; are, taldeotatik, zenbaitetan, emakumeen parte hartzea handitzea apropos bilatzen zen. Baina praktikan, bileretan, hitz egiteko txanda hartzeko altxatzen ziren atzamar gehienak gizasemeenak izaten ziren. Gizonak galdera gehiegi egiten dituztelako?

Fisioterapeuton artean, bestalde, %80 inguru dira emakumeak. Baina sare sozialetan, fisioterapiarekin lotutako edukien egileen artean, alderantzizko proportzioa aurkituko duzu. Baita elkargo, zuzendaritza, katedra edo bestelako goiko postuetan ere.

Komunikabideetan ere, kolaborazioak egiten dituzten fisioterapeuten artean gizonok gara nagusi, izparringi honetan bertan duzu adibidea. Emakumezkoak gogoz kontra parte hartzera bultzatu behar al ditugu?

Zaharren egoitzetako langileen artean, generoen arteko aldea are handiagoa da: emakumezkoak dira %95etik gora. Desproporzio hau zaintzaren ardura tradizionalarekin eta gutxiespenarekin lotuta dago. Izan ere, zaharren zaintzan garrantzi gehien duten langileak (presentzian zein kopuruan) klinika-laguntzaileak dira; baina askotan, zuzendaritzatik gehiegizko lan karga ezartzen zaie. Zaintza negozio bezala hartzearen albo kalteak dira: gastuen eta etekinen arteko aldea handitu nahiarenak, alegia. Bistan denez, hau norbere osasunaren kaltetan da; baina baita egoiliarren arretaren kalitatearenean ere. Langile fina eta eroantsua izatea batzuetan kaltegarria ere izan al daiteke?

Sukaldaritzan ere, proportzioak bertsuak dira. Berrito, tradizioaren

eraginez, arlo oso feminizatua dago (soldatapean zein ez), baina ospearen izarrek gizonetakoak izaten dira. Negozioan ardurak banatu behar direnean ere, gizonak aukeratzeko joera nabarmena dago, nahiz eta ekipoa emakume gehiago egon. Erosoagoa al da aginduak jasotzea, ematea baino?

Kasu hauen guztien artean, amatasunaren faktorea dago. Emakume guztiek ez dute haurrik izaten, noski; baina haurrak izaten dituzten gehienak, oraindik, emakumeak dira. Beraz, ardura postuetarako izendatua ez izatearen arrazoi nagusietako bat da hori, nahiz eta ahoz gora ez adierazi. Horren aurrean, Administrazioak bultzatutako neurriak dira gakoak; baina baita haurgintzarekin lotutako absentismoa gizonen gain uztea ere: gurasotasun baimenak, jardunaldi murrizketak, medikuarenera eramateko orduak... Baina norbere umea beste batek haztea gogorra egiten zaie askori; “ama txarra” izateko beldurra gainditu beharko litzateke? •

www.abante.eus



Gizonen eta emakumeen arteko parekidetasuna lortzeko badago zer egin oraindik. GETTY IMAGES

{ asteari zeharka begira } **Ramón SOLA**

Iluntasunean itsasargia izateko bokazioari eutsi

ritzi trukaketa arin bat izan dugu erredakzioan Trump-Vance-Musk hirukote bihozgabearen azken-aurreko infamia iritsi denean. Adimen Artifizialaren bitartez egindako bideoari buruz ari naiz, zeinetan Gaza, bonbek suntsitutako eremu bat izatetik, oraindik milaka gorpuzki hondakinen azpian direla, luxuzko itsasertzeko estazio izatera pasa daitekeela irudikatzen den. Oihartzunik ez ematea erabaki dugu, noski: Etxe Zuriaren propaganda bizkortzeko baino ez zuen balioko. Beste albo ondorio negargarri bat ahaztu gabe: haserrearen ordezkaria eragin zezakeela albisteak. Triste da, gero, baina horrela dago mundua.

Gizagabetasunak arinkeriarekin bat egiten duenean, ekaitz ezin hobe sortzen da. Duela mende bat Hitlerrekin gertatu zen eta gaur berriro gertatzen ari da Trumpekin. Palestinan genozidio bat ikusi berri dugu, bertatik bertara eta gordinkeria osoz, eta megalomano eta psikopata den diktadore batera iritsi gara orain. Pailazoa dela pentsatzea ez da kontsolagarria, pertsonaia barregarria izatea ez baita bateraezina immoral, masa-hiltzailea edo gizateriaren «number one» etsaia izatearekin. Alderantziz. Trump Neron moderno bat da, ukitzen duen guztia erre dezakeena.

Izurrite honen efektu hedatzailea gure begien aurrean dago jada. Ukraina bere baliabide natural preziatuenak lagatzeko zorian dago, eta horrek 1930eko hamarkadako nazien jokamoldea gogorarazten du berri. Eskubide zibil sozialen edo, oro har, giza eskubideen aurkako eraso abian da mundu osoan. Bi muturreko adibide, gordinak eta egosiak: Argentinan, Mileiren Gobernuak aniztasun funtzionala duten pertsonen argi deitu die idatziz, eta Alemanian, eskuinean egin dute herritarrek, nabarmen.

Trumpen aldeko laudorioak entzun ditut hemengo taberna batean, Zelenskiren aurkako oldarraldiaren biharamunean. Ez da kasu isolatua, inertzia bat da: Lakuako arduradunak eta enpresaburuak elkarrekin lotsagabeki goraiatzeko ari dira industria militarra. MAGA ez da Make America Great Again bakarrik, Make Authoritarianism Great Again ere bada; aginkeriak, gizagabekeriak, errukigabetasunak goia jo dute.

Inpotentzia tentazio errazegia da testuinguru ustel honetan. Zerbait egin dezake Euskal Herriak, bere txikitasunean, halako elur-jausi baten aurrean? Galdera honi erantzuteko, beharbada kanpotik begiratu behar diogu gure herriari, barrutik baino. Eta talaia horretatik, euskal erreferentzia gure dimentsio geografiko-humanoa baino askoz handiagoa da. Mende bat geroago errepikatzen hasi den 30eko hamarkada latz hartatik orain arte beti itsasargi bat izan da, orduko

MAGA aroan, EEEE izan liteke hemengo ibilbide-orria: Egin Ezazu Euskal Herria Ezberdin. Ez da aski, baina ez da ekarpen txikia izango, etsipena barneratzen ari diren Europa eta mundu honetan

gudariengandik gaur egungo borroka ugarietara. Orrialde hauetan beretan, Turingo gizarte zentro baten Askatasuna izena hartu duela aipatu da berriki.

MAGArekin aurrean, EEEE da aukera, alerta-deia dirudiena, Egin Ezazu Euskal Herria Ezberdin mezua laburbiltzen duena. Ezberdin, beti bezala, eta orain, behar handiagoz. Herri honek ez du mundua Trumpengandik salbatuko, baina iluntasunean argia izateko baldintzak baditu, bokazioa beharko luke, eta misioa bere (gure) egin. Eta M8a egun ezin hobe da erakusteko. •

«JOXPINAXI»

Josefa Albisu, martxoak 8 batean gizonak menderatu zituen emakumea

📁 **PILOTA** / Asier AIESTARAN

Nazioarteko Emakumeen Egunena bilakatu aurretik, martxoak 8 batean pilotaren historiako partida garrantzitsuenetako bat jokatu zen Lazkaon. 1885. urtea zen, eta plazako pilotalekuan bildutako jendetzaren aurrean, Josefa Ignacia Albisu Aranburu izeneko emakume batek gizonazko baten aurka neurtu zituen indarrak esku huska. Garaiko kazetarien harridurarako, Albisuk aise menderatu zuen bere aurkaria, eta lorpenak hautsak harrotu zituen hurrengo egun eta asteetan. Plazara jendaurrean jokatzeraz irten zen lehen esku pilotaritzat hartzen da Albisu, "Joxpinaxi" ezizenez ezaguna.

Ezarritako aurrekaria horren ederra eta baliotsua izan arren, "Joxpinaxi"-ren historia ez da batere ezaguna, eta ez da batere erraza informazioa lortzea. Orain arteko ikerketa lan mamitsuena Iñaki Arriaran idiazabaldarrak egin zuen duela zenbait urte, 2020an "Bertsolari" aldizkarian erreportaje formatuan argitaratu zuena. Eta Arriaranekin izandako harremanaren ondotik, Santiago Lesmes pilotaren ikertzaileak ere ("La increíble historia de la pelota vasca" liburuaren egilea) artikulu zabala eskaini zion Josefari bere interneteko atarian.

Kontuan izan behar da Lazkaoko partida historiko hura duela 140 urte jokatu zela, eta gaurdaino iritsi den informazioa garai hartako testuinguruan ulertu behar dela, hala-beharrez. Alde batetik, garaiko egunkari eta aldizkariak argitaratutako kronikek ez dutelako datu askorik eskaintzen; zenbait kasutan datu nahasga-

Emakumeek betidanik jokatu izan dute pilotan, baina jendaurrera irtetea, historikoki gizonazkoentzat soilik izan den plaza horretan lekua egitea, oztopoz beteriko bidea izan da. Pauso hori ematera ausartu zen gaur 140 urte Josefa Ignacia Albisu lazkaotarra, frontoian ere gizonazkoak baino gehiago zela erakusteko.



rriak ere argitaratu izan direlako –Lazkaoko partida 1881ean jokatu zela edota Josefa Ignacia eibartarra zela, esaterako–; eta garaiko kazetariak, garaiko jendartearen isla, emakumeak erabat gutxies-ten zituztelako.

Ñabardura horiek guztiak eginda, dakiguna jakinda, eta daturen bat agian erabat zehatza ez dela izango argi utzita, ukaezina da "Joxpinaxi"-ren historia kontatzea merezi duen horietakoa dela.

PRESTAKETAK

Josefa Ignacia Albisu Aranburu Lazkaon jaio zen 1859ko martxoaren 19an: historiara pasako zen partida 25 urterekin jokatu zuen, beraz, 26 bete baino egun batzuk lehenago. Eta bere haurtzaroz dakigun bakarra garaiko kroniketan aipatzen den datutxo bat da, "Joxpinaxi"-k tifusa izan zuela gaztetan eta gaitzaren ondorioz hortzak eta ilea galtzera iritsi zela.

Era berean, 1885eko martxoaren 8ko desafioa nola sortu zen ezagutzeko azalpen bakarra 1938ko irailean "Fotos" aldizkari falangistan argitaratutako erreportaje batean jasoa dago. Kontakizun horrek bere izaeraren zertzelada batzuk eskaintzen ditu: «Indartsu nago eta ongi tratatzen naute Errukietxean. Denak hil ziren, baina nik oraindik pilotan jokatuko nuke jenderik ez balego», dio ordurako 79 urte zituen "Joxpinaxi"-k. Hori bai, tentuz hartu beharreko dokumentua da, erreportajea partida jokatu eta 53 urtera idatzi zelako eta aipatzen dituen hainbat datu okerrak direla badakigulako.

Artikulu horretan kontatzen denez, Josefa Ignacia Albisu Labetxea baserrian bizi

zen, pilotalekutik hurbil, eta Mateo Lasa izeneko gizon batek, hura ere han gertuko baserri batekoa, etengabe zirikatzen omen zuen, emakumeei barre eta burla eginez. Antza denez, Albisuk ezin zuen gehiago jasan, eta egun batean desafioa bota omen zion Lasari: «Nahi duzun lekuan pilota partida bat jokatu deza-kegu, eta baietz nik irabazi».

Desafioa jendaurrean egin zuenez, gizonzkoa ez zen ausartu atzera egiten, eta hitzordua jarrita geratu zen: martxoaren 8an Lazkaoko pilotalekuan. Gizonak galtzeko beldurra zuela pentsa daiteke, lehenik eskuko arazoren bat tarteko partida atzeratzen saiatu zelako, eta garaiko egunkariak ziotenez zalantza nagusia norgehiagoka noiz jokatu izan zelako: "Joxpinaxi"-k arratsaldean jokatu nahi omen zuen, ahalik eta ikusle kopuru handienarekin, apustu gehiago ere egingo zirelakoan, ziur asko –argitaratu zenez, bere aitak, Jose Joakin Albisu Arresek, behi bat jokatu zuen alabaren alde, eta bi aurkari urte ontza bat jokatu zuten, baina Iñaki Arriaranek sinagarritasuna kentzen dio datu horri bere ikerketan–; Mateo Lasa goizez jokatzearen aldekoa zen, kanpotik jende gutxiago ingura zedin edo. Azkenean, partida goizez jokatu zen, eta "La Voz de Guipuzcoa" egunkariak egunaren hainbat xehetasun jaso zituen.

GARAIO KRONIKA

Partida goizeko bederatzietan zen jokatzekoa, eta ordubete lehenagotik Lazkaoko plaza jendez gainezka omen zegoen. Donostia, Tolosa, Segura eta inguruko beste herri batzuetatik auto asko iritsi omen ziren, eta trenez ere



1938an Josefa Ignacia Albisuri Donostiako Gros pilotalekuan egindako omenaldian Pascual Marinek ateratako argazkiak. Eraketisten urrezko garaiak ziren. Pascual MARIN | FOTO MARIN FUN-TSA | KUTXATEKA

bai, mendi bideak baliatuta. Partida hasi baino hamar minutu lehenago, Guardia Zibilak eta mikeleteek lekua egin behar izan zuten, partida jokatu ahal izateko.

Ikusleek oihuka eta txapelak jaurtiz eman zioten ongietorria Albisuri. Kronikariak deskribatzen duenez, perkalezko gona eta txaketarekin azaldu zen frontoira, galtzerdi zurien gainetik alpargatak jantzita. Eta buruan zapi iluna, lehen aipatu dugun tifusaren ondorioz ilea moztua zuelako. Aurkaria minutu batzuk lehenago iritsia zen, eta, alkandoraren mahukak igota, zain zegoen pilotalekuan.

Kronikak kontatzen duenez, gizonzkoak txanpon bat jaurti zuen airera sakea erabakitze-ko, baina txakur txiki bat zela ikusita, Josefa Ignaciak txan-

pon hura ostikoz jota itzuli omen zion bere jabeari, poltsikotik duroko pezeta atera eta hura jaurtitzeko. Lehen sakea gizonari egokitu zitzaion.

Alfer-alferrik, ordea, saketik falta egin zuelako. Eta hortik aurrera Albisu erabat nagusitu zen. Kronikak dioenez, horma-bikoarekin tanto onak egin zituen, atzera jota mordoxka bat, sakez beste hiru... Eraitza 30-11koa izan zen, eta hogeitun minutu eskas iraun zituen. Kronikak dio trenean beranduxeago iritsitako jendea haserretu egin zela partida horren azkar amaitu zelako. Baina ez zuten horretarako arrazoi handirik, Josefa Ignaciak arratsaldean beste partida bat jokatu zuelako Lazkaon bertan, eta hurrengo egunean, martxoaren 9an, hirugarren bat ere bai, Tolosan.

DATU GUTXI

Beste bi dema horien inguruko informaziorik ez dago aipenas. Arratsaldeko partida ere Josefa Ignaciak irabazi zuela, gutxi gehiago. "Fotos" aldizkari-ko erreportajea aipatzen da alkateak eskatu zuela aurkariren bat bilatzeko, eta "Prancheas" –edo "Pranche-sa", bi modutara idatzia dago– ezizena zuen batek jokatu zuela. Hurrengo egunean ere, Tolosan, «frantses bat» izan omen zuen aurkari Albisuk; beraz "Prancheas" izen hori "frantses" hitzetik zetorrela pentsa daiteke.

"Bertsolari" aldizkarian, Iñaki Arriaranek dio aurkariak nor izan zitezkeen ezin dela zehaztu, baina pista batzuk ematen ditu: «Gizonzko hau nor zen zehazki jakiterik izan ez badugu ere, dakiguna da ga-

rai hartan Paristik etorritako organo-konpontzaile batzuk egon zirela inguru horietan. XIX. mende amaiera organo erromantikoen goraldiaren garaia izan zen, eta, Felipe Gorriti organo-jotzaile tolosarrak sustatuta, Tolosako Santa Maria parrokian organo berria inauguratu zen 1885eko apirilaren 12an. Organogileak Stoltz Freres etxeko langileak ziren, eta bazter hauetan lanean ibili zirenak Edouard Stoltz eta Fernand Prince gazteak izan ziren. Tolosako organoa egiteaz gain, inguruko herri askotan izan ziren organoak konpontzen. Litekeena da, beraz, komentuen eta elizaren artean lau organo zituen Lazkaon ere lanean egon izana, edo partidaren berri izan eta hura ikustera Lazkaora joan izana».

Hortik aurrera, "Joxpinaxi" famatu egin zen, eta badakigu maiatzaren 25ean beste neurketa bat jokatu zuela Bilbon, inauguratu berria zen Abandoko pilotalekuan –5.000 pertsona inguru sartzen ziren eta pilotaren historiako lehen frontoi industrialtzat hartzen da–. Ordizian ere beste partidaren bat jokatu zuela aipatzen du Lesmesek, eta Amerikara joateko eskaintza jaso zuela, garaiko 6.000 durokoa zehazki, baina ezetz esan zuela ez zuelako Euskal Herritik alde egin nahi. Bere irudia duen margolan bat ere egin zuen R. Gorrotxategi artistak, nahiz eta horrek ere baduen bere misterioa. "Lazkao 1982" urtekarian margolanaren argazki bat argitaratu zen, baina ez dakigu gaur egun non dagoen.

Argi dagoena da Albisuk bidea ireki zuela. Arriaranek nabarmentzen duenez, urte horretatik aurrera hasi ziren emakumezkoen lehen pilota



partidak egunkarietan aipatzen: 1896an Abandoko pilotalekuan, 1897an Valentziako Jai-Alai eta Bartzelonako Condal pilotalekuetan...

BALENTRIAREN OIHARTZUNA

Deigarria egiten da, partidak horrelako ikusmina piztu arren, garaiko egunkarietan ez dela inoiz Jose Ignacia Albisuren izena aipatzen. «Una muchacha» («guapa por cierto» gehituz), «ella» (jatorrizkoan ere letra etzanez), «la protagonista»... aipatzen dute. Eta neurketa ere «partido raro» eta «desafío raro» bezala des-

Pilotan gizonezko asko baino hobea zela erakutsi zuen Albisuk 1885ean, eta garai haiek gogoratuz, argazki hauek egin zizkioten 53 urte geroago. Pascual MARIN | FOTO MARIN FUN-TSA | KUTXATEKA

kribatzen dute, norgehiagokari kirol balioa kenduz.

"Joxpinaxi"-ren balentriari bertsoak ere jarri zizkion Ramos Azkarate Otaegi tolosarrak. "Lazkauko pelotari neskatx bati jarriak" izenburupean, sei bertsoz osatutako sorta da 1931ko azaroaren 8ko "Bertsolariya" aldizkarian argitaratu zena. Bertso horietan ere ez da Josefa Ignaciaren izena inondik inora aipatzen, eta Azkaratek harridura eta asaldura nahasten ditu bere ahapaldietan.

Aurreneko bertsoak halaxe dio, adibidez: «Lenguan bi partidu Lazkauban izanik/ kanta-

tu gabe nola egon ixilik/ oraintxen ere nago ezin sinisturik/ mirabe batek ala jokatu zuenik,/ otedu besterik bere parekorik/ bi partidu ain errez jango dituenik/ ain baldin balitzake bera bakarrik».

Baina hirugarrenaren hasierak argi uzten du nola ikusten zuen bertsoaren egileak gertatutakoa: «Emakumeak jartzen badira nagusi/ ez giñazke iñola soseguz bizi/ ezkerrak diradela pelotari gutxi/ eta ezin li-teke askora iritxi...»

Hori zioten gutxiespenetik idazten zutenek, baina zuze-nean kritikara jo zutenak ere izan ziren. Lazkaoko partidek izan zuten oihartzunaren erakusle da, adibidez, Andaluziako "El Guadalete" egunkarian 1885eko martxoaren 22an argitaratutako iritzi artikululu batean egiten den aipamena. "¡Mujeres!" izenburupean eta N.B. inizialekin sinatuta, emakumeen «inposaketa» salatzeke, Lazkaoko pilota partidak jartzen ditu adibidetzat, gertaera lotsagarri eta lehenbailehen moztu beharreko zatiz joz.

"Joxpinaxi"-ren ibilbideaz ez daukagu beste datu askorik, baina zorionez emakumeek pilotan jokatzeko jarraitu zuten hurrengo urteetan, eta arrakasta handiena XX. mendeko lehen hamarkadatan izan zuten, erraketistek goia jo zuten garaian. Hain zuzen ere, "Joxpinaxi"-ren lorpenak gaur arte iristearen arrazoietako bat 1938an Donostiako Gros auzoko pilotalekuan egin zioten omenaldia da, eta garai hartan argitaratutako kazetaritza-dokumentuak.

Josefa Ignacia Albisu Aranburu 1950eko otsailaren 4an hil zen, Donostian, 90 urterekin, merezitako errekonozimendurik jaso gabe.

Margot Hainaut-ekoa, Tita Azantza edo Maria Unzueta, beste katebegi aitzindariak

Emakumeek betidanik jokatu dute pilotan Euskal Herriko auzo, herri eta hirietan. Besterik da, batez ere adin batetik aurrera, hainbat garai historikotan gaizki ikusia zegoela, zer esanik ez jendaurrean jokatzeari. Zorionez, izan dira oztopo horiek gainditu eta ezarritako arauak apurtzea lortu zuten aitzindariak.

Santiago Lesmes-ek «La increíble historia de la pelota vasca» liburuan egindako datu bilketa mardulak erakusten duenez, Antzinarotik aurki daitezke emakumeak pilota mota desberdinekin jokatzen erakusten dituzten marrazki eta irudiak. Behin Erdi Aroan sartuta, ugariak dira Euskal Pilotaren «senidetzat» har daitekeen Jeu de Paume jokamoldean aritzen ziren emakumeen inguruko erreferentziak, kasu gehienetan aristokraziari lotuak.

Izen propioak aurkitzea, ordea, askoz gehiago kostatzen da. Izenez ezagutzen den lehen emakume pilotaria Margot Hainaut-ekoa izan zen. 1405 eta 1449 artean idatzitako «Journal d'un bourgeois de Paris» eguneroko anonimoan aipatzen denez, 1427an iritsi zen Frantziako hiriburura Valoniako eskualde horretatik, 28 eta 30 urte artean zituen, eta Garnier Saint-Ladre kalean jokatzen zituen partidak. Lesmesek gehitzen duenez, 1424 inguruan Parisera joateko deitua izan zen Margot Borgoinako Dukearen aurrean jokatzerari, eta bere izena historiara pasatu bada, sekulako maila erakutsi zuelako izan da: garaiko pilotari onenak menderatu omen zituen, gizonetakoak ere bai, eta diru asko irabazita itzuli zen bere jaioterrira –ezagutzen den lehen emakume pilotari profesionaltzat har daiteke–.

Euskal Herrira etorrita, Tita Azantza edo Tita Kanbokoa da izen-abizenek

dokumentatuta dagoen lehen emakume pilotaria, XVIII. mendearen amaieran. Azantza pilotari famatuaren (Jean Pierre Sorhainde) arreba zen Tita, eta Jean Martin Hiribarrenen «Eskaldunak» poema luzean aipatzen da bere trebetasuna: «Azantza izatu da, pilota botatzen,/Parerik etzuen Frantzian aurkhitzen./Bazuen arreba bat gizon iduriko,/Jakak khenduz geroztik, ona pilotako», esaten da «Ur bereziak» izeneko atalean. Baionako Euskal Museoan bada margolan bat, Federico Amadeok 1937an egina, Tita Azantza erakusten duena pilota eta eskularrua hartuta eta gerriko gorria jantzita.

Mende bat beranduago, 1878an, jaio zen Maria Unzueta Echebarria eibartarra, lehen emakume puntistatzat hartzen dena. Berak zortzi urte zituela, familia Bilbora joan zen bizitzera eta bere aitak hiriko hainbat frontoien ardura hartu zuen. La Amistad izenekoan, Maria ederki moldatzen omen zen xisterarekin 12 urte betetzerako, eta hamalarekin mutil gazte onenen pare jokatzen omen zuen. Hainbat eskaintza jaso zituen profesional bilakatzeko, baina ez aitak ez anaiek –haietako bi pilotari profesionalak– ez zioten «baimenik» eman. Hori dena Cleto anaiak utzi zuen idatzita, 1974an –Maria hil eta 26 urtera–, «Eibar» aldizkarian.

Zorte hobea izan zuten XIX. mende amaieran Valentzian –“Chiquita del Turia”, “Vivita”, “Excelsior”, “Chiquita de Murla”– eta Bartzelonan –Elvira Biosca “Chiquita de Sans”, Rosa Cristal “La Pedros” Antonia Clotet “La pequeña de Gracia”, Josefa Colomer “La Catalana”– profesionalki jokatu zuten puntistek. Handik 15-20 urtera famatu egingo ziren erraketisten aurrekaritzat har daitezke, katebegi aitzindariak denak ere.



Erraketisten aurretik beste aitzindari asko izan ziren. Pascual MARIN | FOTO MARIN FUNTSA | KUTXATEKA

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*





ENA ESPERANZA (45 URTE. NIKARAGUA)

Duela 17 urte iritsi nintzen Euskal Herrira, 2008an. Familiari eta seme-alabei ekonomikoki lagundu ahal izateko utzi nuen Nikaragua. Hasiera batean umeak zaintzen egin nuen lan, ondoren etxeko langile egoiliar bezala, eta orduka garbitzen ere bai. Gaur egun, adineko emakume bat zaintzen dut. etxeko langile egoiliar bezala lan egitea zaila da, etxean giltzapetuta egote hori, ezin irtetea zure senide eta lagunekin egon ahal izateko, baina tira, ohituz joaten zara, eta azkenean, zaintzen dituzun pertsona horiek ere asko maite dituzu.

Nire herrialdean Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasturte bana burutu nituen. Euskal Herrian, Gurutze Gorriko eta Kutzako ikastaroak egin ditut adinekoen zaintzan hobeto lagundu ahal izateko. Ikastaro sozio-sanitarioa ere burutzen ari naiz, eta benetan pozik nago nire emaitzekin.

Niretzat zailena paperak eskuratzea izan da, eta etxebizitza batean erroldatze egonkorra lortzea. Dokumentaziorik gabe lan bat lortzea ere ez zen erraza izan.

ZAINTZA

Euskal Herrian bizi diren emakume migranteen testigantzak

📁 **MIGRAZIOA** / Tolosako Jabetze Eskolako Argazkigintza Taldea

Gure helduen zaintza lanak ia beti emakumeen esku uzten dira oraindik ere, eta horietatik gehienak emakume migranteak izan ohi dira. Euren herrialdea eta familia utzi dituztenak etorkizun hobe baten bila. Ikusezinak askorentzat, funtsezkoak guztientzat.

Espainiako nazionalitatea dut orain, “nire aingeru” deitzen ditudan emakume euskaldun batzuek izugarri lagundu nindutelako.

Bidean asko borrokatu behar izan dudana arren, gaur egun oso eroso sentitzen naiz Euskal Herrian.

DIGNA CESPEDES (50 URTE.

DOMINIKAR ERREPUBLIKA)

2008ko otsailean iritsi nintzen Euskal Herrira. Nire familiarentzat etorkizun hobe bat lortzeko helburuarekin.

Bakarrik etorri nintzen, seme-alabak eta senarra Dominikar Errepublikan utzita, eta

egia esan erraz aurkitu nuen lana. Nire koinata hemen zegoen jada, eta berak erraztu zidan bidea.

Urte hauetan guztietan, adinekoen zaintzaile gisa lan egin dut gehien. Horrez gain, etxeak garbitzen eta ostalaritzan ere bai. Zazpi urte igaro nituen etxeko langile egoiliar bezala lanean, eta ez nuen inolako arazorik izan.

Nire herrialdean lizentzia dut kontabilitatean. Euskal Herrian, egoitzetarako modulu sozio-sanitarioa burutu dut, desgaitasuna duten pertsonak zaintzeko ikastaro bat: “Pertsonarengan oinarritutako arreta” eta mendekotasuna

duten pertsonak zaintzeko beste ikastaro bat.

Euskaltegia ere joan naiz bi urtez, pentsatzen dudalako gutxienez gure herrialdeko hizkuntza ezagutu behar dugula gure zaintzaile lana hobeto egiteko. Nire hiru seme-alabek euskaraz hitz egiten dute eta jada tolosarrak dira.

VERONICA MELISSA HAYA (33 URTE. KOLONBIA)

2022ko azaroan iritsi nintzen Euskal Herrira. Senideak nituen hemen. Nire helburua nire herrialdean baino hobeto ordainduta dagoen lan bat aurkitzea zen, han utzi nuen familiari lagundu ahal izateko.

Nire bikotekidearekin etorri nintzen, ni baino bi hilabete beranduago etorri zen hona. Iritsi bezain laster hasi nintzen lanean adineko pertsona bat zaintzen.

Osasun okupazionalerako profesionala naiz Kolonbian. Hemen, Euskal Herrian, hainbat ikastaro egin ditut: *personal shopper*, ingeleseko ikastaro bat turismorako, eta, gaur egun, erakunde sozio-sanitarioen ikastaroa burutzen ari naiz.

Niretzat zailenak familia han uztea eta etxebizitza bat lortzea izan dira. Ezagutu dituz

Goiko argazkietan, ezker-eskuin, Ena Esperanza eta Digna Cespedes.
TOLOSako JABETZE ESKOLAKO ARGAZKIGINTZA TALDEA



dan pertsonak asko lagundu naute. Zaintzaile gisa izan dudan esperientzia, funtsean, oso ona izan da, oso ondo tratatu nautelako, eta etxe desberdinetan garbiketan egin izan ditudan gainontzeko lanetan ere ez dut inolako arazorik izan.

LOUBA
(45 URTE. UKRAINA)

Nire herrialdean liburuzain gisa egiten nuen lan; Euskal Herrian, ordea, adineko pertsonen etxeak garbitzen. Han utzi dudan familiari laguntzeko helburuarekin etorri nintzen hona, eta benetan gogorra da, Ukrainak gaur egun bizi duen egoera ikusita. Hizkuntza ere izan nuen oztopo hasieran, orain jada moldatzen naiz.

DANIELA PONCE
(51 URTE. NIKARAGUA)

2008an iritsi nintzen Euskal Herrira, Nikaraguako egoeratik ihesi eta han utzi nuen nire familiari aukera berri bat emateko asmoz. Esan beharra daukat niretzat ez zela erraza izan



Lerro hauen gainean, ezker-eskuin, Veronica Melissa Haya eta Louba. Lerro hauen alboan, Daniela Ponce.
TOLOSAKO JABETZE ESKOLAKO ARGAZKIGINTZA TALDEA

aurkitzea, baina lortu nuen azkenik, adineko pertsonak zaintzen. Gainontzeko zaintzaile guztiek bezala, nik ere sozio-sanitario ikastaroa burutu nuen eta ondoren 7 urtez Zaldibiako etxe batean egin nuen lan. Azkenik, oraindik Nikaraguan bizi ziren nire seme-alabak hona ekarri ahal izan nituen. Zaharrenak Ingeniaritza Informatikoa ikasi du, bigarrenak Antropologia, eta hemen jaio zen txikia Elektrizitatea ikasten ari da. Hirurek hitz egiten dute euskaraz. Oso prozesu zaila da familia hona ekartzearena, urtebete inguru igaro zen hemen nirekin izan nituen arte. Zorteduna naiz, beti laguntza handia eman didan jendez inguratuta egon naizelako. Gaur egun zaintzaile bezala lan egiten jarraitzen dut, eta oso pozik nago. Amaitzeko, esan nahi nuke askotan merezi ez ditugun etiketak jartzzen zaizkigula: mila bider entzun behar izan dut, eta ez zentzu onean, «emakume latinoak askoz ere kariñosoagoak zarete», edo «atzerritar guz-



tiak gobernua emandako laguntzetatik soilik bizi nahi duzue». Guk ondo baino hobeto erakutsi dugu lanera gatozela.

**WENDY ESTRADA
(44 URTE. NIKARAGUA)**

Nikaraguan utzi nuen nire familiaria laguntzeko asmoz iritsi nintzen Euskal Herrira. Bi hilabete igaro ondoren, etxeko langile egoiliar bezala hasi nintzen lanean. Oso gogorra izan zen niretzat, urtebetez ez nuen jai egunik izan, bi ordu besterik ez nituen libre eguneko. Era berean, ezagutu ahal izan nituen pertsonak asko lagundu ninduten, haiei esker izan nuen nire eskubideen berri. Hona etorri nahi duten migranteei esango nieke galdetu dezatela iritsi bezain laster, guk ere baditugulako eskubideak. Tolosako Emakumeen Etxean elkartzen den Kafe Tertulia izeneko taldeko emakume migranteak nire familia bezala sentitu nituen, izugarri lagundu ninduten eta azkenik, hasieran zaila izan zen arren, Euskal Herrian

bizi izan dudana esperientzia oso ona izan da.

**DIANA VALDIVIA-
(49 URTE. NIKARAGUA)**

Lan aukera hobe baten bila etorri nintzen Euskal Herrira, nire eta Nikaraguako nire familiararen bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin. Justu konfinamenduan iritsi nintzen hona, eta benetan gogorra egin zitzaidan. Presio handia sentitu nuen, neukan diruarekin nire gela ordaindu eta jan besterik ezin nuen egin. Askotan pentsatu nuen berriro nire herrialdera bueltatzea. Lau hilabete igaro ondoren, ordea, etxeko langile egoiliar gisa ibili nintzen lanean bi urtez. Euskal sukaldaritzari buruz nik ez nekien ezer, baina nire inguruko pertsonak irakatsi zidaten, benetan atseginak izan ziren nirekin. Zaintzen nuen pertsona hil zenean, beste lan bat aurkitu nuen, "interna" bezala berriro ere, eta aldi berean sozio-sanitario ikastaroa burutu nuen. Gaur egun

oso eroso sentitzen naiz, lagun asko egin ditut eta benetan espero dut nituen helburu guztiak lortzea.

KAFE TERTULIA TALDEA

Kafe Tertulia Tolosaldeko Emakumeen Etxean elkartzen diren jatorri desberdinetako

emakumeek osatzen duten taldea da. Asteazkenero biltzen dira euren arazo, duda edo esperientziei buruz hitz egiteko. Aldi berean, migrazio gaitan profesionalak diren zenbait emakumeren laguntza jasotzen dute, eta benetan baliagarria da beraientzat.

Lerro hauen gainean, Wendy Estrada eta Diana Valdivia. Azpiko aldean, Tolosaldeko Kafe Tertulia taldea. TOLOSako JABETZE ESKOLAKO ARGAZKIGINTZA TALDEA





Gorka ETXEBARRIA DUEÑAS
Historialaria

Iragana ez da inoiz etxean egon

Lehen bezala izan dadila, buka daitezela gauza moderno hauek guztiak». «Lehenera itzuli behar dugu, gauzek ondo funtzionatzen zuten garaira». Haurtzaroarekin ere gertatzen da, badugula halako nostalgia bat, dena marabillosa izan balitz bezala. Hori da guk gogoratzten duguna askotan, noski, haurrak ginelako, denboraren zatirik handiena olgetan pasatzen genuelako eta guztien irribarreak jasotzen genituelako. Halako zerbait gertatzen zaie feminismoak urduri jartzen ditueni. «Zer dira gauza moderno hauek guztiak? Zer da anabasa hau?». Agian historia beti izan da korapilatsua, ez da inoiz egon zuk imajinatzen duzun iragan lasai eta ordenatu hori.

Gure amak azkar batean itzuli ziren lanera gu jaio eta aste gutxira, emakume langile izatea zaintza lanaren gainetik ulertzen baitzuten orduan, emakume aske izateko zuten ideari lotuta. Gure amamek, etxeko txikiak zaindu, etxeko lanak egin eta ondoko baserri edo pisukoei laguntzearekin batera, etxean enkarguak egiten zituzten, kanpoan lan egiten ez zutenean. Izan beste emakume batzuek eskatutako joskintza lanak, izan lan-tegietako lanen azpikontratazioa. Gure birramonek 20ko hamarkada zoriontsua delakoa ezagutu zuten, batez ere emakume gazteentzat urrezko garaiaren hurbileko zerbait izan zena, orain ehun urteko lanpostu moderno haietan askatasun ekonomikoa eta lagunekin aisialdian ibiltzeko oniritzia irabazi baitzituzten.



Emakumeak lanean, Portugalgo jatetxe batean. Horacio VILLALOBOS | CORBIS via GETTY IMAGES

Belaunaldiz belaunaldi jo dezakegu atzera, ikusiz nola emakumea etxean irudikatu duen nostalgia patriarkala, praktikan, ez den inoiz existitu. Jo dezakegu XIX. mendearen bukaerara, non emakumeen gauetako lana debekatu baitzen. Normalean langile mugimenduaren lehen lorpenetakoa bezala ulertu dena (umeen lana ere debekatu baitzuten) praktikan emakumeak etxera bidaltzeko enegarren saiakera bezala ere uler daiteke. Atzerago ere joan gaitezke, XV. eta XVI. mendeetara, ikusteko nola gremio askotan emakumeen lana debekatu zen. Erdi Aroko eskulangileen gremioei buruz eskolan erakusten den ikastun-ofizial-maisu sekuentzia horretan, ikastunen artean neskatoak inbisibilizatuta geratzen dira, ahaztu egiten da langile gizonezko kontrata-tuez gain familiako emakumeek ere tailerrean lan egiten zutela eta senarra hiltzean, haren emazteak hartzen zuela maisuaren toki.

Jarrai dezakegu gero eta iraganerago joaten. Ikusiko dugu nola erromatar gizartean ere, topikoak topiko, emakumea ez zegoen etxean. Eliteko emakumeek jabetzak eta negozioak maneiatzen zituzten, eta askotan, baita haien seme eta senarren ibilbide politikoak ere. Langileen artean, emakumeak orotariko lanpostuetan ageri dira, baita errementari bezala ere, Vulkano oso maskulino irudikatzen dugun arren. Pentsa dibortziorako aukera bazegoela, eta, familiak hala erabakiz gero, baita abortua praktikatzekoa ere.

Emakumezko historialariek eta genero ikuspegiak izugarri aberastu dute gure iragana ikusteko modua, eta gure orainaldiko topiko, nostalgia eta aurreiritziak ulertzeko ere bideak ireki dizkigute. Nerea Aresti, Eider de Dios, Bakarne Altonaga, Aintzane Rincón... euskaldunon artean ere horretan diharduten historialari bikainak ditugu, zorionez.

{ koaderno } Mijo LIZARZABURU

Gaixotasuna negozio, Sagardui aberats

Gotzone Sagardui Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu ohiak sektore pribatura jauzi egin zuen urtarrilean. COVID-19aren pandemian hartutako neurrien arduradun nagusietakoa izan zenak, kargua utzi eta sei hilabete eskas igarota, Gasteizko Vithas San Jose klinikako zuzendari mediku postua lortu du. Tratamenduaren zain itxaron zerrendetan dauden guztien partez, lan-baldintzen etengabeko okertzea bizi duten osasun langileen partez eta Osakidetzaaren pribatizazioaz kezkatuta gauden herritar guztien partez: zorianak zure soldata igoeragatik, Gotzone!

Sagarduiren enplegatzaile berria, Vithas, Goodgrower inbertsio taldearen parte da. Talde horrek osasun pribatuan duen presentzia etengabe hazi da azken urteotan. 2012an sortu zenetik, 20 ospitaleren eta 39 osasun-zentroyen jabe egin da, eta milioika pazienteri zerbitzua eskaintzen die. Vithas-en hazkundea ez da kasualitatea, baizik eta, Gobernu-kontratuak eta aseguru-etxeekin egindako akordioak baliatuz, sektore publikoarekin harreman estua bermatu duen negozio-estrategiaren emaitza.

Goodgrowerren negozio-eredua argia da: gaixotasuna etekin ekonomiko iturri gisa ulertzen dute eta, osasungintza publikoaren ahultzea baliatuz, diru-sarrerak maximizatzea dute helburu. Hori guztia, betiere, instituzioen laguntzarekin, osasungintza publikoa deuseztatzeko dirulaguntza eta abantaila publiko ugari jasoz. Are gehiago, ez dute ezta zergarik ordaintzen ere. 2012an, Goodgrowerreko akziodun nagusiak, Gallardo anaiak, Montororen amnistia fiskalaz baliatu ziren paradisu fiskal ezberdinetan ezkututzen zituzten 113 milioi euro zuritzeko.

Dakigunez, gure osasunarekin espekulatzen duten mafioso horien enpresen egoera asko hobetu zen pandemiaren ostean, osasungintza publikoaren baliabide faltak aseguratzaileen bidezko osasun zerbitzu pribatuen eskaera handitu zuenean. Hori ikusita, zilegia da galdetzea ea pandemian osasungintza publikoaren arduradun nagusietakoa zen Sagarduik Jaurlaritzan izandako egonaldia probestu zuen Osakidetza indartzeko edo berbera kaltetu eta Estatuko osasun

pribatuaren bigarren enpresa handienean postu garrantzitsu bat lortzeko.

Etika publikoko batzordea sortu zen 2014an, agintariak kargu publikoa utzi ondorengo bi urteetan enpresa pribatuetan jarduteko zuten ezintasuna bermatzeko, batzordea osatzen zuten bost kideetatik hiru gobernu barnekoak izanik. Hala ere, Alberto Martinez egungo Osasun sailburuak adierazi duenez, Sagarduiren kasuan ez da inolako bateraezintasunik, Vithas klinikarekin “harreman komertzialik” ez dagoelako. Interpretazio horrek, berriro ere, zalantzan jartzen du ate birakarien gain dagoen kontrola eta Jeltzalez osatutako Etika publikoko batzordearen eraginkortasuna.

Sagarduirena ez da osasun publikoaren arduratik osasun pribatura jauzi egiten duen EAJko kargudun baten lehenengo kasua. Bere lankide izandako Mikel Sanchez Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariak ere hiru hilabete behar izan zituen kargu publikoa utzi eta Mutualiarentzat lanean jartzeko. Jon Darponek, Sagarduiren aurreko Osasun sailburuak, 2019an dimisioa eman ondoren, Keralty Health aseguru-etxe pribatuan amaitu zuen lanean. Ibon Etxebarria, Darponen lantaldeko kidea, berriz, Osakidetzaaren anbulantzien kontratu nagusia zen, eta kudeaketa okerragatik kanporatua izan zen Grup La Pau enpresako gerente bihurtu zen. Benetan noren mesedetan ari dira lanean kargu publiko horiek? Osasungintza publikoa hobetu nahi dute edo etorkizuneko karrera pribatuak bermatzea dute helburu? Aipatutako kasuek erakusten dute ez dela salbuespena, baizik eta eredu bat: politikari neoliberalek sektore publikoa baliatzen dute ondoren lanpostu bat emango dien negozio pribatuak sustatzeko.

Jaurlaritzak gaixotasuna negozio errentagarri bihurtu nahi du, baina hori ekiditeko ez da nahikoa oposizioeko alderdiek Jeltzaleen etika falta kritikatzeko. Herritarrok Osasungintza publikoaren alde egiten dugu: manifestazio etengabeak hiriburuetan, kontzentrazioak anbulatorioetan, sindikatuen kanpainak... Ezkerreko politikariek zuen lana egiteko ordua da, ate birakariak benetan debekatzen dituzten legeak aurrera ateratzeko. •



«Zaintza lanak emakumeek egiten ditugulako dira ordaindu gabeak, ez afektiboagoak direlako»

**LORE LUJANBIO
ETXEBERRIA**

FILOSOFOA

Ikerlari eta militante transfeminista, “Euskal demokrazia patriarkala” liburuaren egilekidea da. Zaintza lanak «derrigorrezkoak eta txandakakoak» izan daitezen aldarrikatzen du.

Mikel URDANGARIN IRASTORZA

Zaindu maite duzun hori” abesten zuen Rupert O’Donoghue. Abesti eder hori nola, zaintza hitza ere nonahi entzun dugu azken hamarkadan zehar: “Zaintza krisia”, “zaintzarako ituna”, “auto-zaintza”, “zaintzaileak zaindu”... Tartean, «zaintza eskubide kolektiboaren alde», iazko azaroaren

30ean greba feminista orokorra ere egin zen. Zaintzaz aritzean, baina, zertaz ari gara? Hori argitzeko asmoz, Lore Lujanbio (Hernani, 1988) ikerlariak doktore tesia aurkeztu zuen iaz, “Zaintzaren dispositibo patriarkala: emakume zaintzaileak ekoizteko mekanismoen analisia” izenburuarekin. Helduleku interesgarria izan daitekeela koan, hori aletzen eta lurrera-

tzen saiatu gara elkarrizketa honetan zehar.

Zaintzaren dispositibo patriarkala ikertu duzu. Zergatik aukeratu duzu gai hori? Eta zergatik orain?

Nik tesia 2018 inguru horretan hasi nuen, M8ko greba feministaren antolaketaren testuinguruan. Eta uste dut gaur egun ere testuinguru hori mantentzen dela. Borroka feministari esker, zaintzak geroz eta garrantzi handiagoa hartu du gizartean. Eta horrek inplikatzeko du zaintzaz nola hitz egiten dugun birpentsatzea: nola definitzen dugun, ze diskurtso erabiltzen ditugun... Nik antzematen nuen askotan zaintzaren kontzeptu oso zabala erabiltzen dugula, eta horrek ez digula ahalbidetzen zenbait botere mekanismo zehatz nabarmentzea. Gainera, zaintzaren esparruan diskurtso biologizista, naturalista eta erromantizatzaileak oso-oso indartsu hedatzen ari dira. Horrek ere kezkatzen nau edo horren aurka egiteko estrategiak pentsatzea ere ezinbestekoa iruditzen zait.

Nik ez dut uste zaintza lanen definizio bakar bat aukeratu behar dugunik testuinguru guztietan erabiltzeko, baina uste dut ezinbestekoa dela definitzeko modu ezberdinek daukaten inplikazio politiko eta filosofikoak aztertzea, eta bereziki zaintzaren izaera historikoa, produzitua eta materiala azpimarratzea. Hain zuzen, hori izan da nire helburua: zaintza lan kontzeptua feminismo materialistatik birpentsatzea, alderdi horiek nabarmenduz.

Izaera historiko hori bistartzeko, genealogia zabala egin duzu tesian. XVIII. mendea mugarriztat jo duzu. Zer gertatu zen orduan?

Tesian argudiatzen dudana da, Europako testuinguruan behintzat, etxeko eta zaintza lana XVIII. mendean ezartzen hasi zen produkzio erlazio patriarkala dela. Patriarkatu kapitalista eta kolonialistaren sorrera eta garapenarekin batera, transformazio ugari gertatu ziren, eta horrekin, botere dispositibo berri hau sortu edo garatu zen. Berria esaten dudanean ez dut esan nahi hainbat praktika aurreko mendeetan ere ez zeudenik. Ez da guztiz berria, baina etxeko eta zaintza lana bereizitako esparru feminizatu eta erromantizatu bezala mende horretan hasi zen garatzen, maskulinizatutako dimentsio guztiekiko oposizioan. Alegia, lan ordainduarekiko eta merkatuarekiko oposizioan.

Horretarako, amaren eta emaztearen figura jakin bat eraiki zen.

Hori da. Adibidez, Erdi Aroan eta aurreko mendeetan, emakumetasuna amatasunarekin eta ezkontzarekin lotuta zegoen, baina ez maitasun erromantikoarekin. Modernitatean zehar ezkontza, familia eta amatasuna erromantizatu egin ziren, eta emakumeen lana ere maitasunarekin lotu zen, naturalizatuz eta zilegituz. Horri erantzuten dio Silvia Federiciren esaldi famatuak: ‘Beraiek maitasuna deitzen diote, baina lan ez ordaindua da’.

Botere forma berri horretan, egiteko bikoitza zuten ama-emazteek, ezta? Batetik, arauak betetzea; bestetik, arauak betearaztea.

Bai, hori da, familia heteronuklearraren produkzioarekin, familiako emakumeei arau berri horiek betetzea eta bete-

«*Borroka feministari esker, zaintzak geroz eta garrantzi handiagoa hartu du gizartean. Eta horrek inplikatzeko du zaintzaz nola hitz egiten dugun birpentsatzea: nola definitzen dugun, ze diskurtso erabiltzen ditugun...*»



raztea ezarriko zaie. Izan ere, beraiek atzemango dute arau berri hauek emakumeen bitartez familietan barneratzea estrategikoa dela: higiene eta elikadurarekin loturikoak, lo ordutegiei zegozkienak, haurrak hezteko modua...

Horretarako, batetik, emakumeak menderakuntza patriarkalen menpe kokatuko dira: senarrarekiko azpiratuta, lan ez ordaindua ezarriko zaie. Arau horiek zehaztuko dituztenak ere autoritate patriarkalak izango dira, gizon adituak: medikuak, filosofoak, eta abar. Baina, aldi berean, familian arau horiek betearazteko rol horrek ere emango die mikrobotere txiki bat emakumeei, eta hortik baloratuko dira gizartean. Adibidez, haurrak diziplinatzeko ardura egotziko zaie. Edo, zenbait testuingurutan, senarrek araua betearazteko rola: adibidez, zenbait fabriketan, gizon batzuek soldata guztia edaten eta abar xahutzen bazuten, soldata zuzenean emazteari ematea erabakiko zuten. Orduan, horrek sustatuko du emakumeek arau horiek barneratzea eta beraien lekua horrekin identifikatzea, baina betiere subalternitatean kokatuz.

Testuinguru horretan, kapitalismoa zabalpen betean zegoen. Zuk bereizi egiten dituzu produkzio erlazio kapitalistak eta patriarkalak. Zeintzuk dira loturak eta ezberdintasunak?

Produkzio kapitalistak XVIII. eta XIX. mendean sortu eta hedatu ziren. Produkzio erlazio kapitalistetan, gizon zuriak orokorrean, nahiz eta beraien lan indarra saltzera behartuak egon, ordutegi bat edukiko dute. Hau da, beraien gorputza kapitalistek ez dute osotasu-

nean bereganatuko: ordutegi eta soldata bat edukiko dute, eta horrek estatus bat emango die familiako emakumeekiko.

Aldiz, emakume guztiei apropiazioan oinarritutako produkzio erlazio patriarkalak ezarriko zaizkie. Horrek inplikatzeko duena da gorputza osotasunean hartzen dela, ez da goela neurrik: ez ordutegirik, ez soldatarik... Gizonen eta, bereziki, senarren neskame edo esklabo izateko betebeharra zuten.

Azpimarratzen duzunez, emakume guztiei ezarri zitzaizkien desjabetze hori, ez soilik emazteei.

Hori da, ze emakumeek oro har hiru aukera edukiko dituzte: ezkontzea, neskazahar modura anaiairetara etxean lan egitea edo puta izatea. Guillauminek azaltzen duenez, bi apropiazio mota daude: bata da apropiazio pribatua, gizon batek emaztearen gorputza osotasunean hartzen duenean; bestea da apropiazio kolektiboa, emakumeek klase modura oro har jasaten dugun apropiazio edo subalternitate mota hori.

Gainera, ez da bakarrik etxeko esparru pribatura murrizten, gizonen espazio guztietan edukiko dutelako emakumeen gorputzak bereganatzeko eskubidea eta boterea. Adibidez, hau bortxaketarekin zuzenean lotzen da: emakumeen gorputzak publikoak direla, eta, hortaz, bereganatu daitezkeela ulertzen da. Horren arabera ulertzen da lan ordainduan emakumeek gutxiago kobratzea edota beti eta nonahi gizonen zerbitzari izango direla espero izatea ere.

Hortaz, zaintza lanez ari garenean, ez gara soilik zeregin jakin batzuez ari, baizik eta

emakumeak desjabetzeko produkzio erlazio jakin batzuez. Hori ñabardura garrantzitsua da.

Bai, ulertzen badugu etxeko eta zaintza lana definitzen duena ez direla zeregin zehatz batzuk, baizik eta produkzio erlazioak, horrela ulertuko dugu zergatik zeregin berdin bat maskulinizatu egiten denean produkzio erlazioak transformatu egiten diren. Adibide oso argi bat sukaldaritza da. Gizonak sukaldaritzan aritzen direnean, soldata altuak jasotzen dituzte, chef bilakatzen dira, hitzak eraldatzen dira (Basque Culinary Center deituko zaio)... Azken batean, aitor-tza eta prestigioa duen espazio bat bilakatzen da.

Horregatik, chef pribatu batek familia batentzat etxean janaria prestatzen duenean, ez diogu zaintza deitzen. Aldiz, familiako emakume batek soldatarik gabe egiten duenean, edo etxeko langile batek soldata oso baxuekin egitean, zaintza deitzen diogu eta bereizitako esparru bat bezala ulertzen dugu.

Hortaz, zereginen edukiek ez dituzte eragiten lan-baldintzak. Alegia, kontua ez da zaintza-lanak afektiboagoak direlako ez direla ordaintzen, baizik eta emakumeek egiten ditugulako direla ez ordainduak. Ez dago zaintza-lanen berezko ezaugarri esentzial edo naturalik azaltzen duenik zergatik den ez ordaindua, edo ordaindua denean emakumeek zergatik dituzten eskubide gutxiago eta soldata baxuagoak.

Gaur egunera etorrita, zuk aipatu izan duzu logika hori ez dela desagertu, baizik eta «berkonfiguratu» egin dela. Zertan datza horrek?

Bereziki XX. mende amaieratik aurrera, borroka feministei esker, eskubide eta askatasun feministak irabazi ditugu. Gaur egun senarrek ez dauzkate emazteekiko XIX. mendean edo XX. mende hasieran zeuzkaten botereak, ez gaituzte zuzenean behartzen haurrak izatera edo zaintzaile izatera, gaur egun ez daude lan ordainduetatik emakumeak kanporatzeko legeak... Baina, berriz ere, patriarkatua birkorkatu egin da.

Batetik, azpimarratzekoak dira pribatizazio neoliberal eta patriarkalak. Testuinguru patriarkal batean, zaintzeko egitura publikoak pribatizatzen eta desagertzen badira, horrek emakumeen lan ez ordaindua areagotzen du. Bestetik, kontuan eduki behar dugu zaintza behar berriak sortu direla, edo behintzat horien dimentsioa berria dela. Bereziki, adindunen zaintzarekin loturikoak, eta horrek zaintza intentsiboa inplikatzeko du. Orduan, behar horiek areagotuta, ez badaude egitura publikoak, eta emakumeen subjektibitatea zaintzaile bezala sortzen bada, zaintza lanen feminizazio hori mantentzen da, zuzenean behartu gabe bada ere.

Irakurri izan dizudanez, gurasotasuna borondatezkoa izateak badu bere ifrentzua.

Bai, amatasuna gaur egun desiratu eta hautatu bilakatu da, eta hori bada lorpen feminista bat. Baina, aldi berean, hautu hori logika neoliberal baten bitartez ardurareagotzeko erabiltzen da: ‘Zuk zeuk aukeratu ahal izan duzunez, amatasun normatibo hori aurrera eramateko ardurarek osoa edo gehiago daukazu’. Adibidez, 24 orduko haurtzaindegia egon behar li-

ratekeen edo ez eztabaidak daudenean, hor oso ohikoa da esatea: ‘Joe, ba orduan ez eduki umeak’. Ematen du etengabe erabiltzen den mehatxu bat dela, ardura osoa daukazula nabarmentzeko.

Horren harira, amatasunaren intentsifikazio bat gauzatu dela diozu.

Amatasun intentsiboaren eraikuntza XVIII. mendean hasi zen garatzen, aurrerantzean ama izateak haurren arduradun nagusia edo ia bakarra izatea inplikatzeko baitu. Adibidez, inudeen kontra, nabarmenduko da haurra erditu duen amak edoskitzea dela natural eta osasuntsuena. Kontua da hamarkadaz hamarkada intentsifikatzen joan dela, eta azkeneko hamarkadatan bereziki. Gaur egun haur gutxiago edukitzen dira, baina haur bakoitzari eskaini behar zaion denbora askoz ere handiagoa da. Izan ere, haurren zaintza egokiaren arauak intentsiboagoak eta zurrunagoak bilakatu dira: haurdun zaudenean arrisku guztiak ekiditeko egin beharrekoa, zenbat aldiz dutxatu behar diren haurrak, ze janari eman behar zaien... Amek ez dakit zenbat liburu irakurri behar dituzte, ematen du tesi bat egin behar dutela.

Eta aita eta gizonei dagokienean zer gertatu da? Gehiago parte hartzen dutela esaten da.

Gizonen parte hartzea areagotu den galdetzen badugu, erantzuna baiezkota da. Hala ere, oraindik ere emakumeek askoz denbora gehiagorik jarduten dute, eta eduki zehatzetan sartu behar dugu zer transformazio gertatu den eta zer ez ikusteko. Nik Eustatek egiten duen analisisia aztertu dut, bes-

«Gaur egun haur gutxiago edukitzen dira, baina haur bakoitzari eskaini behar zaion denbora askoz ere handiagoa da, haurren zaintza egokiaren arauak intentsiboagoak eta zurrunagoak bilakatu baitira»

te ikerketa batzuekin batera. Hor antzematen dutena da gizonen parte hartzea etxeko eta zaintza lan ez ordainduan oro har areagotu egin dela, baina bereziki haurren zaintza ludikoan eta noizbehinkakoan. Hortaz, gizonen parte hartzea konpromiso gutxiago eskatzen duten eta zama gutxiago daukaten zereginetan areagotu da bereziki: parkera joan, futbol partida bat ikusi zure semearekin... Eta, gainera, emakumeengan zaintzea

naturaltzat eta gizonengan salbuespenezkotzat jotzen denez, egiten dutenean askoz ere errekonozimendu handiagoa jasotzen dute.

Azken urteetan gurasotasun-baimenak luzatu eta transferiezin egin dira Hego Euskal Herrian. Horrek ze eragin izan du?

Baimen horiek boluntarioak ez izatea ezinbestekoa da. Uste dut hori dela gakoetako bat. Kasu honetan, ikerketek era-





kusten dute emaitza positiboa izan duela, ze aukeratu zitekeen, baimen hori amek hartzeko joera oso-oso handia zen.

Niretzat logika hori esparru askoz ere gehiagotara hedatu beharko genuke. Adibidez, gurasoak edo adindunak zaintzeko eszedentziak eta baimenak hartzerakoan, nola egin boluntarioak izan ez daitezen?

Zentzu horretan, “Euskal demokrazia patriarkala” liburuan zaintza derrigorrezkoa

eta txandakakoa izan beharko litzatekeela aldarrikatzen duzue.

Proposamena utopikoa da oraintxe, eta botere-korrelazioei begiratuta argi dago horrelako sistema sortzetik urrun gaudela. Baina guk proposatzen duguna da zaintza lanak ez direla boluntarioak edo afektibitatearekin lotuak izan behar, ez behintzat zaintza lan intentsiboenak. Ez dut esan nahi beste dimentsio batzuk egon ezin direnik, edo guztiak

derrigorrezkoak izan behar dutenik. Baina, euskal zaintza sistema publiko eta feminista baten eraikuntzarekin lotuta, familiarik kanpo zaintzeko moduak antolatu beharko genituzke. Adibidez, auzoetan edota etxe komunitateetan antolatuta, non adindunen eta haurren zaintza intentsibo horiek txandakatuak eta derrigorrezkoak izango diren. Eta hor, noski, helburuetako bat da gizonak zaintzera eta lan ez ordaindua egitera behartzea.

Hori da gakoa. Logika neoliberal honetan ulertzen da zaintza boluntarioa dela eta hautu indibidual horrekin lotua dagoela. Baina hori badakigu falazia bat dela, ze emakume gisa zaintzera bideratzen zaituzten desirak produzitze-ko mekanismo ugari daude. Beraz, horra erronka: mekanismo horiek kontuan edukita eta aintzat hartuta zaintza lan horiek beharrezkoak direla gizar-tearentzat, nola egin guztiok zaintzeko.

Bide horretan, iaz greba feminista orokorra egin zen Euskal Herrian. Beste hainbat borroka ere garatu dira. Aurrerantzean zein borroka eta neurri gauzatu beharko lirateke?

Uste dut azken urteetan greba feminista oso potenteak antolatu ditugula. Horrez gain, lan ordainduan esparru askotan langileen grebak egin dira, etxeko langileen elkar-teen borroka ere oso garrantzitsuak dira... Zalantzarik gabe, gaia- ren garrantzia gizar-teratzea eta erdigune bat hartzea lortu dugu, eta horretan jarraitu behar da, borroka horiek artikulatzen eta indartzen.

Zenbait herritan zaintza lanei begirako politika zehatzak ere garatzen ari dira, kooperati-

ben eta udalen arteko elkar-laren bitartez, eta beste hainbat zerbitzuren bidez. Zentzu horretan, uste dut ez dugula ahaztu behar zaintza sistema publiko eta feminista egitura-tzea dela ipar-orratza. Euskal Herri mailakoa eta guztiz publikoa, ez herri praktika zeha-tzetan bakarrik geratuko dena.

Baina kontua da indar-korrelazio horietan gatazka handiak daudela eta pribilegioen aurka egitea inplika-tzen duela, diru publiko- z inbertsio handiak egitea. Eta horretarako, zalantzarik ga-be, gatazkan jarraitu behar dugu. Zaintzaren garrantzia azpimarratzearekin batera, askotan zaintzaren alderdi positiboak azpimarratzen di-tugu. Baina, baita ere, eta be-reziki, subalternitate erlazio horiek nabarmendu behar di-tugu, erabat feminizatuta eta arrazializatuta baitaude.

Horri lotuta, antirrazismoa- ren ardatza lantzea da erronka nagusietako bat, ezta?

Hori da. Bereziki emakume migratzaile eta arrazializatuak ari dira etxeko eta zaintza lan ordainduan egoera prekarioe- netan eta subalternoenetan. Eta horren aurka egiteko, gaur egun politika espezifikoak pentsatu behar dira: Atzerri- tartasun Legearen aurka egin eta lan erlazio horiek sortzen dituzten mekanismoak borro- katu behar dira. Etxeko langi- leen elkar-teetakoek esaten du- tenez, gaur egun, eskubide gutxiago edukitzeaz gain, ara- zoa da eskubide horiek ez dire- la betetzen eta ez daudela tres- nak urraketa horien aurka egiteko eta alternatibak sor- tzeko. Hortaz, interseksiona- lak diren eta hainbat ardatz el- kar lotzen dituzten politikak pentsatu behar ditugu.

naiz:



6 MINUTUKO ATALAK · B2 MAILAKO IKASGAIK
HOBETU ZURE EUSKARA MAILA EUSKAL HERRIKO PENTSALARI, SORTZAILE, KIROLARI ETA IKERTZAILEAK EZAGUTUZ
TRANSKRIPZIO OSOA TOPATUKO DUZU NAIZ IRRATIKO 'ADI ETA ARI' ATALEAN


MARTXOAREN 10ETIK AURRERA

naiz:irratia

ASTELEHENETIK OSTIRALERA

20:50

ETA PODCAST PLATAFORMETAN

 Spotify  ivoox

Otsemea

**Maidor IANTZI
GOIENETXE**

Otseme bat ikusi dut Larhunen. Sendoa, argia, bizi indarra bezain boteretsua, bizi emailea. Lurraldeaz kontziente, mugimendu etengabea dabil.

Desmuntatu eta sakabanatutako eskeleto batetik jaio zen. Bada zahar bat, bera ere Otseme deitua, arimaren ezkutaleku batean bizi dena. Hezurak biltzea da bere zeregina, galtzeko arriskuan dena jaso eta mantentzea, eta otsoak dira bere espezialitatea. Hezurdura bat osatu duenean, suaren ondoan jarri eta kanta bat abestu dio. Orduan, hezurak haragiz estali dira eta ilea hazi zaio animaliarri. Bertze kantu bat, eta bizia hartu du; goiti biratu zaio buztana, arnasten hasi da. Hain ozen abestu du Otsemek, ezen

zoruak dar-dar egin baitu. Piztiak begiak zabaldu ditu eta korrika egin du eskapo.

Lasterka doala, abiada bizian, zapaldu duen putzu baten plisti-plasta, eguzki izpi bat edo argitzen duen ilargia dela medio, otsoa emakume bilakatu da. Libre eta irri ajaka doa aitzinera...

Otseme izeneko istorio hau “Women who run with the wolves” (1992) liburuan jasotako ipuinetako bat da. Duela urte dezente gomendatu zidan elkarrizketatu batek, lanean hasi berri nintzela. Clarissa Pinkola Estesena lana lagun izan nuen garraio publikoan egiten nituen bidaia anitzetan, eta gaur berreskuratu eta topoan irakurtzen hastea gozagarria izan da. Martxoaren 8a geure burua oroitzeko data ona izan daiteke. Edozein

egun da aproposa horretarako. Liburu honetako ipuinak sendagarriak dira. Barne mundua argitzen dute eta bueltan eramaten gaituzte emakume jakintsu eta basatien bizira.

Pinkolak dioenez, emakume denongan bizi da emakume basa eta guztiok dugu haren irrika. Harekin bat egiten dugunean sormena loratzen da, harreman esanguratsu, sakon eta osasuntsuak sortzen dira, eta gure zikloetara itzultzen gara, sexuan, sormenean, lanean zein aisian. Senez dakigu noiz hil behar duten gauzek, eta noiz bizi behar duten; badakigu nola urrundu eta nola egon. Gure sena baieztatzen dugunean, gau izartsu bat gara: infinitu begirekin ikusten dugu mundua. •

Iraultza imposiblea

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Emakumearen eguna da gaur. Esateko modu bat da, egutegian banderatxo morea ezartzea, ze jakina da, aldarri guztiena bezalaxe, egunero beharko lukeela izan emakumeen eguna, eragiteko zein borrokarako eguna, arrakala eta genero-injustizia guztiak apurtzeko ahaleginak eguneroko zereginak baitira.

Munduan, begia non jarri, emakumearen eskubideen egoerak jarraitzen du larri. Aldeak izugarriak dira, halere, eta berdintasunerantz egin beharreko urratsen erritmoak ezberdinak dira, halabeharrez. Europan feminismoak nagusiki berdintasun-eskubideen alde eta indarkeria sexistaren kontra dihar-

duen bitartean, hego Ameriketara, arraza eta klase borrokaz gain, feminizidio gordinari aurre egin behar diote, indarkeria hiltzaile orokortuari, soilik emakume izateagatik.

Ez da zutabearen asmoa eskubideen aldeko borrokaren historia kontatzea, baina obligaziozkoa da erreferentziazko emakume batzuen aipamena egitea: Emmeline Pankhurst, Clara Zetkin, Malala Yousafzai, Rosa Parks, Angela Davis, etab.

Hauek guztiek teoria landu, ipar hainbat ezarri, aldarriak egin eta konpromiso osoa hartu zuten, baina nire ustez azpimarragarriena da arrakala zehatzen batean beren burua ekintza zuzenera

eraman zutela. Gehien bat azken horregatik bilakatu dira erreferente.

Gaur ere pauso eraginkorrak emango badira, mugimendu zabalaz gain, esango nuke tokian tokiko emakume erreferenteak behar direla, baina arrakala guztien apurtzea eta egiazko berdintasuna lortuko lukeen iraultza zabal bakarria imposiblea da. Tokian tokiko iraultza txikiak baino ez ditut ikusten posible, arrakalen murru erraldoia zatika eraitsiko luketen iraultza txikiak.

Ze ez dute balio Laboaren ahotsetik kantatu genituen letrak, “Denak ala inor ez, dena ala ezer ez, bakarka ezin da...fusilak ala kateak”, bihotzetik eta erromantizismo sanotik ez bada... •

EMAKUMEAK ZIENTZIARA TENTATZEKO AHALEGIN ETENGABEA

Amagoia MUJKA TELLERIA

Badira hamar urte UPV-EHUko Donostiako Informatika Fakultateko e-makumeak taldearen eta GAUR8ren bideak txirikordatu zirela. Informatikako Ingeniaritzan emakumeek duten presentziarekin kezkatuta dago e-makumeak, eta hilero ekartzen du GAUR8ra adi-tuen ekarpena. Zientzia emakumeena ere badelako.

Martxoaren 8aren bueltan, dena bihurtzen da more koloreko. Batzuetan fatxadako pintura baino ez da, egun pare bat “tapatzeko” baino baliyo ez duena. Ez da e-makumeak taldearen kasua. UPV-EHUko Donostiako Informatika Fakultatean sortu zen 2000. urtean, kezka bat akuilu: fakultatera gero eta neska gutxiago gerturatzen ziren. Geroztik, etengabeko ahaleginean ari dira jendarteari mezua helarazteko: Informatikako ikasketetan eta zientzian orokorrean bada emakumeentzako tokia.

Horretarako, hiru norabidetan banatu dute erronka: lehena, informatikaren historian ezagun izan diren emakume informatikarien erreferentziak biltzea. Bigarrena, emakumeek informatikaren irakaskuntzan eta lan-esparruan duten presentzia aztertzeke, analisi estatistikoak eta kuantitatiboak egitea. Eta hirugarrena, informatikari buruzko ikasketak aukeratzeko unean, neskek aurkitzen dituzten oztopoak ezagutzeko asmoz, azterketa kualitatiboak egitea.

«Uste dugu informatikariaren inguruan estereotipo maskulino bat sortu dela gizarte mailan, lanean modu isolatuan eta zeregin ilunen batean ari den gizona zuri, betaurrekodun eta bakartiaren irudia.

Neskek informatika zer den hobeto ezagutuko balute eta eguneroko jardunean informatikariekin zer-nolako erronkei aurre egiten dieten jakingo balute, errazago gerturatuko lirateke

Datua argigarria da. Garai batean Informatikako fakultatean %50 ingurukoa zen emakumeen presentzia. 2000. urtearen bueltan, %18ra jaitsita zegoen kopurua



Estereotipo hori informatikarien lan-esparru errealetik oso urruti dago, eta neskentzat ez da batere erakargarria. Neskek informatika zer den hobeto ezagutuko balute eta eguneroko jardunean informatikariekin zer-nolako erronkei aurre egiten dieten jakingo balute, gure ikasketetara errazago gerturatuko liratekeela uste dugu. Garai batean horrela

izan zen, informatikako ikasketak sortu zirenean, neskak eta mutilak kopuru berdintsuetan sartzen ziren», nabarmendu dute taldekideak.

Datua argigarria da. Garai batean Informatikako fakultatean %50 ingurukoa zen emakumeen presentzia. 2000. urtearen bueltan, %18ra jaitsita zegoen kopurua. «Mundu mailako gertaera izan zen. Zerikusia izan dezake Informatika ingeniari-tza bihurtu izanarekin, informatikaria zer den ulertzen denarekin eta horren inguruan eraiki den estereotipoarekin», iritzi diote.

Bide horretan abiatuta zegoen e-makumeak taldea 2014. urtean GAUR8rekin topatu zenerako. Hortaz, estereotipoak deseraikitzeke eta emakumeak zientziara gerturatzeke erronka horretan, astekariaren orrialdeetan topatu dute beste espazio bat azken hamar urteotan. Hilabeteen behin, e-makumeak





taldeko irakasle eta ikerlariak gaurkotasan beteko gaiak modu pedagogikoan eta argian ekartzen dituzte GAUR8ren Teknologia izeneko txokora. Elkarlanaren ondorioa euskaraz adituek idatzitako aparteko erreportaje sorta bat da, informatikaren aurpegi oso desberdinak eta oso gaurkoak biltzen dituen.

AURTEN, TXARTELAK ETA BIDEOAK

Urtez urte, martxoaren 8aren inguruan, era batera edo bestera saiatu dira e-makumeak taldetik GAUR8n egindako ekarpenari zabalkundea ematen. Elkarlanean argitaratu dituzte lau bilduma paperean: 2014-2015, 2016-2017, 2018-2019, 2020-2021. Azken urteetan argitalpen digitalak egin dituzte, eta aurten beste urrats bat gehiago egin dute dibulgazioa ahalik eraginkorra izan dadin.

Martxoaren 8aren bueltan, fakultateko ikasgeletako ateetan marrazkiz eta QR kodez atondutako marrazkiak paratu dituzte, bakoitza galdera batekin:

Irudiotan, Donostiako Informatika Fakultateko e-makumeak taldeak prestatutako txarteltxoak.
E-MAKUMEAK

“Adinekoen zaintzan nola lagun gaitzake teknologiak?”, “Teknologiak lagun gaitzake elikagaiak modu arduratsua goan kontsumitzen?”, “Humanitateetan eta gizarte-zientzietan euskaraz ikertzeko azpiegiturek zertan lagun gaitzakete?”, “Pentsaera konputazionalarekin trebatzeak zein gaitasun garatzen laguntzen die haur eta gazteei?”, “Nola lagun dezake Adimen Artifizia-

lak emakumeen eta nesken kontrako indarkeria-zantzuak aurkitzen?”. Era horretako galderak dira ikasleen jakinmina piztu nahi dutenak, eta QR kodearen bitartez, galderaren erantzuna jasotzen duen GAUR8ko testura irits daitezke. Horrez gain, 2024. urtean zehar GAUR8n argitaratutako bost artikuluren bideo bana ere sortu dute, sare sozialetan zabaltzeko. Egunotan ikusgai izango dira sareetan bideo horiek.

Emakumeak zientziara erakartzeko ahalegin etengabea da e-makumeak taldeak egiten duena, urteko egun guztietan. Estereotipoak birrintzea ez da erraza, harri gogorrez daude eginak. Horiek haustea eta emakumeak Informatika fakultatera erakartzea obsesio bihurtu zaie. Informatika bizitzako eremu guztietan beharrezkoa dela eta bizitza bizigarriagoak egiteko tresna baliagarria dela nabarmendu dute irakasle eta ikerlariak. Eta ideia hori zabaldu nahian jarraituko dute lanean aurrera begira ere.





Nerea SANCHO ESNAOLA

Sexologian eta bikote harremanetan espezializatutako psikoterapeuta

Atletak bezala

Ondo dokumentatuta dago atleta batzuek, lesio bat dela eta hilabeteak entrenatu gabe pasatu ostean, beraien markarik hoberena egin izan dutela, nabarmen gainera.

Psikoterapeuten kasuan, gripe baten ondoren edo ebakuntza bat eta gero, bueltan, gure gaitasunetan ere salto kualitatibo bat ematen dela esango nuke; pertsonalki zenbait datu zehatz (data, adina, gertaera...) berraztertzen zaizkit, baina nolabait terapeuta izateko softwarea aktualizatu egiten zait, eta hori nabaritzen dugu sentibiltasunarekin, jarrera pausatuan, sakontasunean eta konektatzeko gaitasunean.

Ez gara robotak. Artisautza da. Gai-xo jartzen gara, hazi egiten gara, eta batez ere gure pazienteekin dugun konexio horretan, hazten direnean asebeteta bueltatzen gara etxera.

Hori da gure harribitxia.

Kontzientzian, espazio pribatu horretan sartzen gara.

Psikoterapeutak ereduak dira? Gehiegitxo eskatzea litzateke, baina gutxienez inspiragarriak izan behar-ko genukeela uste dut.

Autozaintzan, saiatuak eta ausartak izatea uste dut ezinbestekoa dela. Ez-beharren aurrean birkokatzen aritzea ere bai.

Martxoaren 8an inor zorionduko ez duen terapeuta bat aukeratzen dut nik.

Egun, psikologiak aurrerakuntza handiak egin ditu, hori ditugu EMDR, Brainspotting, IFS, A ... ez dago aitazkiarik profesional ona ez izateko.



Collagea: FLORE. SENSATHLON

Eskaintzen dizuten soluzio bakoitzeko arazo bat bururatzen bazaizu, hauek denak alferrik dituzu, halere. Terapia ez da zuretzat.

Sarritan entzun dut... “Ongi nagoeanean (dirua, oreka emozionala, bikote harremana, lanpostua...) hasiko naiz joaten terapiara”. Zer zentzu du horrek? Ez al da ba alderantziz? Zulotik ateratzeko, erabakiak hartzeko orduan betiko baldintzapenetatik kanpo begiratzeko...

Nire pazienteak ez ditut kalean agurtzen haiek ni agurtu arte, horrela adostuta dugu. Ez baitakigu egoeraren arabera eroso egongo den bere sexologoarekin kalean hizketan.

Pribatua dena politikoa omen da.

Bai eta ez.

Zure fantasia erotikoa zureak direla diote, baina segun eta nolakoak diren, batzuetan ez. Fantasietan biolentzia baldin badago, orduan ez dira zure eskuetan egon behar, askoren ustez. Ulertzen dut nondik datorren hau. Nola sortu dira biolentzia-fantasiak?

Ados, gure kulturaren sustraituta daude. BAINA fantasia horiek fanta-

sia hutsak dira, ez dira beste inorenak, eta ez dute egia bihurtzeko asmorik. Nire paziente batek kezka handia zuen honekin; emakume izanik, ez zuen ontzat eman nahi horrelako fantasiak izatea. Baina ez ziren amesgaiztoak, bustita bukatzen zuen. Hortaz, nire galdera da noraino ari garen hitz egiten POLITIKO-KI ZUZENA izateaz.

Politikoki zuzena dena eta askatasuna ez datoz bat. Pribatutasunean irudikatzen dugunak ez dau-

ka politikoki zuzena izan beharrik.

Horrela eraiki dira hainbat harreman. Gure bi kide sexologok argi gogoratzen dituzte elkar ezagutu zuten garaiko espektatibak. Bai ala bai, sarketa egitera bultzatua sentitzen zen neska-mutil bikote hau, kunplitzeko. Baita damutu ere.

Horrela jarraitzen dugu. Zailtasun sexualak ideologikoak dira gehienetan. Ideia batek baldintzatzen ditu, ez dago besterik. Ez dira psikologikoak, fisiologikoak, neurologikoak... normalki. IDEOLOGIKOAK baizik. Zer espero dudana, zer erakutsi nahi dudana, nola izan politikoki zuzena. Orgasmoak izan bestea lasaitzeko, sarketa egin normal itxurak emateko, gau bateko harremanak bilatu desio mota egokia dudala auto-errelatatzeke.

Kontra-narratibak behar ditugu egunerokoan. Egiak. Zintzoa izatea norberarekin. Politikoki zuzenak izateari uztea. Ideologiak baztertu eta norbera izan. Zaila bezain beharrezkoa da.

Orgasmoak izateak ez du esan nahi askea zarenik. •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



POLICARPO ELOSEGI. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.

BOINAS ELOSEGIKO LANGILEAK, 1891N

Euskaldunak janzkeran nabarmendu dituen zerbait badago, txapela izan da zalantzarik gabe. Urteetan zehar iraun duen ikur kultural eta soziala izan da. Euskal Herrian, bi lantegi garrantzitsu izan ditugu txapelak ekoizten. Lantegi horietako lehena Antonio Elosegi sortu zuen 1858an, Tolosan. Gaur egun, munduko txapel fabrikarik garrantzitsuenetakotzat jotzen da, bere produktuak herrialde askotara esportatu baitira. Bigarren fabrika Balmasedan zegoen eta 1892an sortu zuen Marcos Arenak. Gaur egun txapelik ekoizten ez duen arren, fabrika hau historia eta ondarea babesten dituen museo bihurtu da. Elosegi txapel-fabrika Tolosako erdigunean egon zen lehen urteetan, eta bertan emakumeek bakarrik egiten zuten lana. Langile bakoitzak txapel bat egiten zuen egunean. Denborarekin, makinak automatizatzeko sistema bat ipini zuten martxan, Europatik ekarria. Berrikuntza horri esker, 1914rako, txapelen ekoizpena nabarmen handitu zen, eta egunean 3.500 txapel inguru egiten ziren. Artikulua ilustratzen duen argazkia 1891koa da, eta Elosegi txapel-fabrikako langile talde bat erakusten du, Policarpo Elosegi argazkilariarentzat posatzen. Policarpo Boinas Elosegiiko sortzailearen iloba zen, eta enpresako zuzendaritzako kidea.

040 bidaiari

naiz: -en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz



BANFF PARKEA

Mendi Harritsuen epitomea

dagoeneko
zure
kioskoan
salgai

1,50€

eta gainera...

VELOROUTE DU LA RHUNE
LAPURDIKO KOSTALDETIK
BARNEALDERA

EKUATORE GINEA
AFRIKA TROPIKALEKO
BELZTXO HURA...

NAWALGARH
HAVELIEN
HIRIA

EGIPTOKO MUSEO HANDIA
PROIEKTU
FARAONIKOA

PARAMARIBO
GUYANA EZEZAGUNETAKO
HIRI EDERRA

Begiradak Meteora, airean esekita **Elkarriketa** Garbiñe Arroyuelo eta Ander Arandia, tandemean

Egin planak 'Harri, Lurra, Huts': Chillida, Zabalaga baserrian **Munduan pasieran** Kaleko arte koloretsua, La Bocan; 'L' trenak, Chicagoko garraioen ikono; 'Gladiatoreak Britainia Handian' erakusketa; The Rockers gazte mugimendua, Kiberan; Terra Nova espedizioan, Antartikara bidean...

